BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

4720

EBAZPENA, 2026ko irailaren 17koa, Ingurumeneko sailburuordearena, zeinaren bidez aldatu eta berrikusi egiten baita Tremefil Izaguirre S.A.ri eman zitzaion ingurumen-baimen bateratua Usurbilgo udalerrian alanbre-burdinazko biribilkietatik abiatuta altzairuzko pletinak fabrikatzeko jarduerarako.

EGITATEAK

1.– Ingurumeneko sailburuordearen 2008ko apirilaren 25eko Ebazpenaren bidez, ingurumen-baimen bateratua ematen da alanbre-burdinazko biribilkietatik abiatuta altzairuzko pletinak fabrikatzeko gaur egun Tremefil Izaguirre S.A.k Usurbilgo udalerrian sustatzen duen jarduerarako.

2.– 2022ko azaroaren 4an, Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Batzordearen 2022ko urriaren 11ko (EB) 2022/2110 Betearazpen Erabakia, zeinaren bidez ezartzen baitira teknika erabilgarri onenei (TEO) buruzko ondorioak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren industria-isuriei buruzko 2010/75/EB Zuzentarauaren arabera, burdinazko metalak eraldatzeko industriarako.

3.– 2025eko azaroaren 11n, Ingurumen Organoak ofizioz hasi zuen AAI00227_REV_2025_001 espedientea, eta, 2025eko abenduaren 2an, Tremefil Izaguirre S.A.ren espedientean bere eskumeneko ingurumen-gaiei buruzko aurretiazko txostena eskatu zien Usurbilgo Udalari, Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak S.A.ri, Osasun Sailari eta Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzari.

4.– 2025eko abenduaren 17an, Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak S.A.k kolektorera isurtzeko baldintzak ezartzen dituen txostena bidali zuen.

5.– 2026ko urtarrilaren 9an, ingurumen-organoak, baimena berrikuste aldera, hauek igortzeko eskatu zion Tremefil Izaguirre S.A.ri: instalazioaren funtzionamenduaren eta ondorioetan deskribatutako teknika erabilgarri onenen arteko alderaketa bat eta lurzoruei buruzko informazio osagarria.

6.– 2026ko apirilaren 29an, Tremefil Izaguirre S.A.k dokumentazioa aurkeztu zuen; zehazki, ingurumen-baimen bateratua berrikusteko eskatu zitzaiona.

7.– Aurkeztutako dokumentazioa nahikoa zela ikusi eta gero, Ingurumen Administrazioko zuzendariaren iragarkiaren bidez erabaki zen jendaurrean jartzea, 20 egun baliodunez, Tremefil Izaguirre S.A.k aurkeztutako dokumentazioa, egoki irizten ziren alegazioak aurkezteko, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen, 2026ko maiatzaren 12an.

8.– Era berean, 2026ko maiatzaren 13an, Usurbilgo Udalari, Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak S.A.ri, Osasun Sailari eta Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzari txosten bat eskatu zitzaien, beren eskumenen esparruan egoki iritzitako iruzkinak jasotzeko.

9.– Jendaurreko informazioaren izapidea amaitu ondoren, alegaziorik aurkeztu ez zela egiaztatu zen.

10.– 2026ko ekainaren 22an, Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak S.A.k kolektorera isurtzeko baldintzak ezartzen dituen bigarren txostena bidali zuen.

11.– Urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzen duen Industriako Emisioen Erregelamenduaren 15.7 artikuluan xedatutakoa aplikatuz, Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak 2026ko abuztuaren 20an ebazpen-zirriborroa eta organismo eskudunetatik jasotako txostenak bidali zizkion sustatzaileari.

12.– Sustatzaileak ez du alegaziorik bidali entzunaldiaren epean.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.– Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 44.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumen-organoak ingurumen-baimen bateratua berrikusi beharko du baimendutako instalazio edo jarduketari aplikagarri zaizkion eta eskuragarri dauden teknika onenen ondorioak argitaratzen direnetik lau urteko epean, gehienez. Horren helburua da, beharrezkoa balitz, haiek egokitzea eta baimenean ezarritako baldintzak betetzen direla bermatzea. Berrikuspenak kontuan izango ditu instalazioan aplikagarriak diren teknika onenen erreferentziazko dokumentuei buruzko ondorio guztiak, baimena eman, eguneratu edo berrikusi zenetik, bai eta kontroletatik edo ikuskapenetatik lortutako zeinahi informazio ere.

2.– 2013ko urriaren 19an, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 815/2013 Errege Dekretua, urriaren 18koa, Industriako Emisioen Erregelamendua onartu eta Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzen duena.

3.– 2016ko abenduaren 31n, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bategina onartzen duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretua argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean.

4.– 2021eko abenduaren 31n, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian 10/2021 Legea argitaratu zen, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena.

5.– Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 21. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumen-baimen bateratuaren helburua da atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadurari aurrea hartzea edo, posible ez denean, murriztea eta kontrolatzea, ingurumenaren eta pertsonen osasunaren babes-maila orokor altua lortzeko.

6.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 31. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, ingurumen-baimen bateratuaren araubidearen mendean dago titulartasun publiko edo pribatuko jarduketa eta instalazioak ustiatzea, haietan lege honen I.A eranskinean jasotako jarduketaren bat garatzen bada eta, hala badagokio, han ezarritako gaitasun-atalaseetara iristen bada. Betiere, baimen hori instalazioak eraiki, muntatu edo lekualdatu aurretik lortu beharko da, eta instalazioetan gertatzen diren aldaketei egokituko zaie.

7.– Aipatu artikuluaren arabera, ingurumen-baimen bateratuaren bitartez, egintza bakarrean eta Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoak aurretiaz emandako prozedura administratibo bakarrean bateratuko dira hondakinak ekoizteko eta kudeatzeko baimenak, kolektorera, jabari publiko hidraulikora eta itsasoko eta lehorreko jabari publikora eginiko isurketen baimenak eta atmosferara eginiko emisioen baimenak, eta dagozkien emisioen muga-balioak ezarriko dira, eskura dauden teknologia onenetan oinarrituta.

8.– Berrikuspen-prozedura urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 16. artikuluan dago araututa.

9.– Ebazpen honetan, teknika erabilgarri onenak zein aplikatzekoa den sektoreko legeriak zehaztutako neurriak eta baldintzak hartu dira kontuan instalazioak gehienez isur edo igor ditzakeen gai kutsagarrien muga-balioak eta bestelako ustiapen-baldintzak zehazteko, ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko helburuarekin. Zehazki, Best Available Techniques (BAT) Reference Document for the Ferrous Metals Processing Industry 2022 dokumentuaren edukiak eta Europako Batzordearen (EB) 2022/2110 Betearazpen Erabakia, 2022ko urriaren 11koa, teknika erabilgarri onenei buruzko ondorioak ezartzen dituena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren industria-isurketei buruzko 2010/75/EB Zuzentarauaren arabera, burdinazko metalak eraldatzeko industriarako.

10.–Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 72. artikuluan (izapideen kontzentrazioari buruzkoan) xedatutakoa aplikatuko da: «Administrazioa sinplifikatzeko printzipioarekin bat, egintza bakar batean erabakiko dira izaeragatik batera bultza daitezkeen eta nahitaez bata bestearen ondoren bete beharrekoak ez diren izapide guztiak».

11.– Ingurumen Sailburuordetza honek ebazpen hau emateko eskumena du, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 3ko 410/2024 Dekretuan xedatutakoaren arabera.

Aipatutako legeria eta oro har zein berariaz gai honetan aplikagarri diren gainerako xedapen guztiak aintzat hartuta, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Tremefil Izaguirre S.A.ri emandako ingurumen-baimen bateratua berrikustea, Usurbilgo udalerrian alanbre-burdinazko biribilkietatik abiatuta altzairuzko pletinak fabrikatzeko jarduerarako, Europako Batzordearen 2022ko urriaren 11ko (EB) 2022/2110 Betearazpen Erabakian ezarritakoaren arabera (teknika erabilgarri onenei buruzko ondorioak ezartzen ditu), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010/75/EB Zuzentarauari jarraikiz, burdinazko metalak eraldatzeko industriarako.

Bigarrena.– Aldatzea Tremefil Izaguirre S.A.ri emandako ingurumen-baimen bateratua, Usurbilgo udalerrian alanbre-burdinazko biribilkietatik abiatuta altzairuzko pletinak fabrikatzeko jarduerarako. Baimen hori 2008ko apirilaren 25eko Ebazpenaren bidez eman zitzaion hasiera batean, eta ebazpen honen eranskinen arabera idatzita geratu da.

Hirugarrena.– Tremefil Izaguirre S.A.ri errekerimendua egitea 2026ko azaroaren 4a baino lehen alderdi hauek bete ditzan:

Skpss makinatik datozen emisioak atzitzea edo haien salbuespena justifikatzea.

Laugarrena.– Ingurumen-baimen bateratuak indarraldi mugagabea du, eta aldizka berrikusten du ingurumen-organoak, ingurumen-baimenen aurrerapen-klausularekin bat etorrita, eskuragarri dauden teknika onenetako aurrerapenek emisioak nabarmen murrizteko aukera ematen dutenean.

Bosgarrena.– Aurkeztutako proiektu teknikoan eta/edo ebazpen honetan adierazitako baldintzetan aldaketarik egonez gero, ingurumen-organoaren ingurumen-informazioko sisteman baimena eskatu edo jakinarazi beharko da, abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 30. eta 46. artikuluen ondorioetarako, bi artikuluetan kasu bakoitzerako eskatzen den informazioa emanda.

Aldaketa bat funtsezkoa ez dela justifikatzen duten dokumentuak aurkeztuz gero, ingurumen-organoak baloratuko du, eta eskatutako aldaketa kalifikatuko du, funtsezkotzat edo ez-funtsezkotzat joz.

Egin beharreko aldaketen eskaerarekin edo jakinarazpenarekin batera, web-orrian eskuragarri dagoen inprimaki hau sartu beharko da:

https://www.euskadi.eus/baimena/ingurumen-baimen-bakarra/web01-tramite/eu/

Era berean, proiektua aldatzen bada, abenduaren 9ko 10/2021 Legearen II.D eranskineko 3. puntuan eta/edo II.E eranskineko 4. puntuan xedatutakoa aplikatuko da.

Aldaketak lurzoru berria okupatzea aurreikusten badu, eskaerak hirigintza-bateragarritasunari buruzko txosten bat jaso beharko du, abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 33. artikuluan ezarritako baldintzetan. Baldin eta aipatutako lurzoruak lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak baditu edo izan baditu, aldaketa gauzatu aurretik, okupatu nahi den lurzoru-kalitatearen adierazpena eduki beharko da, Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeari buruzko ekainaren 25eko 4/2015 Legean ezarritakoari jarraikiz.

Aldaketak lurzoruaren kutsadura-fokuei eragiten badie, eta lurzoruaren egoerari buruz aurkeztutako aldizkako azken txostenean identifikatu badira, txosten eguneratu bat aurkeztu beharko da.

Seigarrena.– Baimena ofizioz berrikusiko da, abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 44.4 artikuluan jasotako edozein kasutan.

Zazpigarrena.– Baimen honek balioa galdu ahalko du honelakoren bat gertatuz gero:

Epearen barruan ez egiaztatzea ebazpen honen hirugarren ebazpen-zatian adierazitako baldintzak betetzen direla.

Zortzigarrena.– Jarduerari aplikatu beharreko neurri edo baldintza guztiak bete beharko dira, ingurumen-legeriak ezarritakoak.

Bederatzigarrena.– Baimen-inskripzioaren kodeak ingurumen-organoak eskura jarritako aplikazio informatikoan agertzen direnak izango dira. Besteak beste, Hondakinen Ekoizpen Erregistroko baimen-inskripzioko kodeak erabiliko dira hondakinak lekualdatzeko dokumentazioa betetzeko.

Hamargarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Tremefil Izaguirre S.A.ri, Usurbilgo Udalari eta ingurumen-baimen bateratua emateko prozeduran parte hartu duten organismoei.

Hamaikagarrena.– Agindua ematea ingurumen-baimen bateratu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko.

Errekurtsoa.

Egintza honek ez du administrazio-bidea amaitzen, eta, beraz, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahalko da beronen aurka, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuaren aurrean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoarekin bat.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko irailaren 17a.

Ingurumeneko sailburuordea,
JOSU BILBAO BEGOÑA.

JARDUERA DESKRIBATZEKO ERANSKINA

ATALA: JARDUERA – BALDINTZA PARTIKULARRAK

JARDUERAREN DESKRIBAPENA

Jarduera hau Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bategineko (abenduaren 16ko 1/2016 Errege Dekretuaren bidez onartua) 1. eranskineko 2.6 kategorian sartuta dago, «Metalen eta plastikozko materialen azala prozedura elektrolitiko edo kimiko bidez tratatzeko instalazioak, tratamendurako erabilitako kubeten edo lerro osoen bolumena 30 m^3-tik gorakoa denean» izenekoan.

Tremefil Izaguirre S.A. enpresa Usurbilgo (Gipuzkoa) Osinalde poligonoko Zelai-aundi kaleko 2. zenbakian dago. Lursailaren dimentsio orokorra 17.905 m^2-koa da.

Bertan, altzairuzko pletinak fabrikatzen dira, alanbre-burdinazko biribilkietatik abiatuta, hotzeko ijezketa-prozesu baten eta beste prozesu osagarri batzuen bidez. Lantegian, 18.000 tona pieza inguru ekoitzi ahal dira urtean.

Prozesua hotzeko ijezketa bat da, eta, bertan, materiala hoztu eta lubrifikatu behar da, ebaketa-likidoaren emultsio baten bidez. Horretarako, hainbat makina daude: Fuhr ijezteko makina, TISA 03 ijezteko makina, Skpss ijezteko makina, Redex ijezteko makina, TISA 02 ijezteko makina, TISA 03 leuntzeko eta ijezteko makina eta TISA 02 leuntzeko eta ijezteko makina.

Alanbre-burdinazko biribilki baten ekoizpena planifikatu ondoren, bobinen biltegitik jaso eta desugertzera eramaten da. Desugertze-prozesuan, gainazala tratatzeko lehen urratsa materialaren gainazalean utzitako zikinkeria ezabatzea da. Horretarako, HCl erabiltzen da desugertzeko elementu gisa, 7.000 litroko edukiera duten lau upeletan.

Jarraian, garbiketa egiten da, biribilkiak segidako hiru kubetatatik (7.000 litrokoak) pasaraziz, azido-hondarrak garbitzeko.

Hotzean ijezteko prozesuak etengabe murrizten du alanbre-burdinaren sekzioa, arrabol bertikal eta horizontal batzuen eraginez. Prozesu horren ondorioz, azken geometriak perdoi oso zehatzak ditu, eta materialaren erresistentzia igo egiten da, barnealdea deformatzen delako. Ondoren, pletina ijeztuak koipegabetze-prozesu batetik igarotzen dira.

Neutralizatzeko 10 m^3-ko bi upel erabiltzen dira, alanbre-burdinari neutralizatzaile-mintz fin bat jarri, eta, hartara biribilkia atmosferarekin kontaktuan herdoildu ez dadin.

Enpresak gas naturaleko bi erregailu erabiltzen ditu neutralizatzaile-bainuak berotzeko (2 bainuek ez dute aldi berean lan egiten, eta, beraz, erregailuek ere ez, txandaka aritzen baitira). Halaber, energia elektrikoa erabiltzen da upelak desugertzeko.

Ijezketaren ondoren, materiala tratatzeko labe elektriko bat erabiltzen da, erregimen sistematikoan funtzionatzen duena, eta bi gas-labe, karga berotzeko erregimen ez-sistematikoan funtzionatzen dutenak.

Neutralizatzailea erauzteko eremuetan eta desugerketa-erauzketan sortzen diren emisioak gas-garbigailu baten bidez arazten dira.

Ur sanitarioen eta industrialen sareak bereizita daude (hozteko eta desugertze-garbiketarako purgak), eta Añarbeko uren kolektorera doaz.

2025. urtean zehar ekoitzitako ura 0,14 m^3/t izan da, eta ekoitzitako energia elektrikoa 297 Kwh/t.

Araztegiak garbiketa-urak arazten ditu. Ur horiek grabitatez isurtzen dira isurketa-kutxatilara, eta, handik, ponpen bidez, tratamenduaren lehen etapara iristen dira:

1.– Neutralizazio-modulua, kare-esnea gehituz PHa neutralizatzeko eta doitzeko.

2.– Oxidazio-modulua. Etapa horretan, burdina oxidatu, eta hidroxido ferriko bihurtzen da. Horretarako, presio baxuko aire-emari handia sortzen duen haizagailu bat dago.

3.– Malutapen-modulua. Oxidaziotik datorren isurketa malutapen-etapara pasatzen da, eta, han, irabiagailu bat dago. Polielektrolito bat gehitzen da, eta haren emaria erregulatzen da isurketarekin nahasteko. Bertan, neurri jakin bateko malutak sortzen dira, aise ikusten direnak.

4.– Malutapen-tratamendua egin ondoren, isurketa hori grabitatez jariatzen da dekantagailura. Behin hara iritsita, lohiak beheko aldean uzten dira, piramide-forman, eta ur argitua lameletan zehar joaten da goiko aldera. Bertan, hodiaren bidez eta grabitatez, azken isurketaren kutxatilara bidaltzen da.

5.– Dekantagailutik datozen eta hezetasun handia duten lohiak lohien lodigarrian biltegiratzen dira. Bertan, lohiak kono-hondoan uzten dira, eta ura dekantagailurantz isurtzen da berriro, gainazaleko solido arinak dekantazioan harrapatuta gera daitezen eta, horrela, ez daitezen isuri.

6.– Ontzi horretan lohi-maila handia ikusten bada, edo eguneroko esperientzian beharrezkotzat jotzen bada, ponpa baten bidez deskargatzen eta iragazten da prentsa-iragazkira.

Euri-urak 250 m^3-ko edukierako depositu batean biltzen dira. Labeak hozteko zirkuitu itxian eta desugertzearen garbiketa- edo urberritze-upeletan iragazi eta berrerabiltzen dira, eta, ondoren, araztegira bidaltzen dira.

Proiektuak, besteak beste, Teknika Erabilgarri Onenak (TEO) izan daitezkeen neurri hauek jasotzen ditu: energia-ekipo efizienteak erabiltzea, prozesuko disoluzioen bero-galerak murriztea, uraren erabilera kontrolatzea, ur-kontsumoa murriztea urberritze anizkoitzen bidez, eta prozesu kimikoen kontzentrazioa kontrolatzea.

ERANSKINA, ALANBRE-BURDINAZKO BIRIBILKIETATIK ABIATUTA ALTZAIRUZKO PLETINAK FABRIKATZEKO TREMEFIL IZAGUIRRE S.A. ENPRESAK USURBILEN SUSTATU DUEN JARDUERA USTIATZEKO ETA JARDUERARI UZTEKO BALDINTZA PARTIKULARRENA

Sustatzaileak jarduera ustiatzeko eta jarduerari uzteko bete behar dituen baldintzak eta betekizunak izango dira eranskin honetan eta IPPC jarduerak ustiatzeko eta uzteko baldintza orokorren (BO) eranskinean jasotakoak. Nolanahi ere, baldintza partikularrak gailenduko zaizkie baldintza orokorrei.

ATALA: AIREA – BALDINTZA PARTIKULARRAK

AIREAREN KALITATEA BABESTEKO BALDINTZA PARTIKULARRAK

• Airea – BO betetzea.

Organo honek airea dela-eta onartzen dituen jarduketak –ingurumen-baimen bateratua dutenak– ustiatzeko eta jarduteari uzteko baldintza orokorrak beteko dira (Airea – BO).

• Atmosfera kutsa dezaketen jarduerak.

Instalazioan, atmosfera kutsa dezaketen jardueren katalogoan jasotako jarduera hauek egiten dira:

Jardueraren kodea	Taldea	Jarduera	Deskribapena
03 01 06 04	C	Kontakturik gabeko beste labe batzuk, beste epigrafe batzuetan zehaztu gabeak, P.t.n <= 2,3 MWt eta >70 kWt dutenak	Neutralizazio-bainuak berotzeko erregailuak
04 02 10 05	B	Altzairuaren tratamendu kimikoak edo elektrolitikoak, substantzia osagarriak erabiltzea edo esku hartzea dakartenak (06 02 epigrafean zehaztu gabeak), hala nola desugertze kimikoa, pasibatzea, elektropulidoa, fosfatatzea edo antzeko prozedurak	Desugertzeko eta neutralizatzeko bainuak
04 02 08 03	C	Burdinaren edo altzairuaren tratamendu fisikoak edo mekanikoak (gainazalekoak edo ez), metalarekiko eragin mekanikoa dutenak, hala nola azala kentzea, granailatzea, urratzaileekin zurruntzea, esmerilatzea, leuntzea, desugertze fisikoa edo mekanikoa, hotzean ijeztea, estrusioa, trefilaketa, argintza, eta antzeko beste eragiketa batzuk galdaragintzako, oxiebaketako edo burdinazko edo altzairuzko piezen soldadurako lantegi industrialetan egiten direnak	Ijezketa hotzean
03 03 26 02	C	Altzairuaren tratamendu termikoak edo termokimikoak, hala nola suberaketa, tenplaketa, iraoketa, zementazioa, austenizazioa, birkristalizazioa edo 03 03 02 01 eta 03 03 02 02 epigrafeetan zehaztu ez diren antzekoak, P.t.n < 2,3 MWt dutenak	Suberaketa-labeak
09 10 01 02	C	Industriako hondakin-uren/-efluenteen tratamendua. Egunean < 10.000 m^3 tratatzeko ahalmena duten instalazioak	Gainazalaren tratamendurako urak arazteko instalazioa

• 2026ko azaroaren 4aren ondoren aplikatu beharreko emisio-iturriak, emisioaren muga-balioak eta jarraipena identifikatzea.

Fokuaren zenbakia	Fokuaren kodea	Fokuaren izena	AKDJ kodea	EM[4]	Arazketa-sistema	Altuera (m)	FA[2]	Substantzia kutsatzailea	Emisioen muga-balioak (EMB)[(1)]	EMB unit.	Metodoa	Aldizkakotasuna (hilabeteak)
1	20004469 -01	Gas naturalaren errekuntza 1 (1. erregailua bainu neutralizatzailea berotzea)	03 01 06 04	K	Ez dauka	11	S	CO	625	mg/Nm^3	02-JT[(3)]: Emisioen kontrolak	60
								NO_x	615	mg/Nm^3	02-JT[(3)]: Emisioen kontrolak	60
2	20004469 -02	Gas naturalaren errekuntza 2 (2. erregailua bainu neutralizatzailea berotzea)	03 01 06 04	K	Ez dauka	11	S	CO	625	mg/Nm^3	02-JT[(3)]: Emisioen kontrolak	60
								NO_x	615	mg/Nm^3	02-JT[(3)]: Emisioen kontrolak	60
3	20004469 -03	Neutralizatzailea erauztea	04 02 10 05	B	Gasen garbigailua	10	S	NO_x	500	mg/Nm^3	EPAko 7D metodoa	36
4	20004469 -04	Desugerketa-erauzketa	04 02 10 05	B	Gasen garbigailua	9,4	S	HCl	10	mg/Nm^3	EN 1911	12
5	20004469 -05	FUHR ijezteko makina	04 02 08 03	K	Olio-lainoaren bereizgailua	10	S	Konposatu organiko hegazkorrak KOG gisa neurtuta	8	mg/Nm^3	EN 12619	12
8	20004469 -08	REDEX ijezteko makina	04 02 08 03	K	Olio-lainoaren bereizgailua	8	S	Konposatu organiko hegazkorrak KOG gisa neurtuta	8	mg/Nm^3	EN 12619	12
9	20004469 -09	TISA ijezteko makina	04 02 08 03	K	Olio-lainoaren bereizgailua	10	S	Konposatu organiko hegazkorrak KOG gisa neurtuta	8	mg/Nm^3	EN 12619	12
10	20004469 -10	TISA 03 ijezteko makina	04 02 08 03	K	Olio-lainoaren bereizgailua	11	S	Konposatu organiko hegazkorrak KOG gisa neurtuta	8	mg/Nm^3	EN 12619	12
11	20004469 -11	TISA 03 leuntzeko eta ijezteko makina	04 02 08 03	K	Olio-lainoaren bereizgailua	11	S	Konposatu organiko hegazkorrak KOG gisa neurtuta	8	mg/Nm^3	EN 12619	12
12	20004469 -12	TISA 02 ijezteko makina	04 02 08 03	K	Olio-lainoaren bereizgailua	11	S	Konposatu organiko hegazkorrak KOG gisa neurtuta	8	mg/Nm^3	EN 12619	12
13	20004469 -13	TISA 02 leuntzeko eta ijezteko makina	04 02 08 03	K	Olio-lainoaren bereizgailua	11	S	Konposatu organiko hegazkorrak KOG gisa neurtuta	8	mg/Nm^3	EN 12619	12
14	20004469 -14	Skpss. ijezteko makina	04 02 08 03	L	-	-	S	-	-	-	-	-
15	20004469 -15	Suberaketa-labea 1	03 03 26 02	L	-	-	ES	-	-	-	-	-
16	20004469 -16	Suberaketa-labea 2	03 03 26 02	L	-	-	ES	-	-	-	-	-

(1) Baldintza hauei dagozkien emisio-mugak: T=273K, P=101,3 KPa eta gas lehorra.

(2) FA: Funtzionamendu-araubidea. S: Sistematikoa. ES: Ez-sistematikoa.

(3) Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2012ko uztailaren 11ko Aginduaren 02 Jarraibide Teknikoa.

(4) EM: Emisio-mota. K: Konfinatua. L: Lausoa.

• Gasak biltzeko eta husteko sistemak.

Airea – Baldintza Orokorrak deritzon atalean (Airea – BO), izen bereko apartatua beteko da, eta taulan ezarritako baldintzak beteko dira.

Emisio lausoak minimizatzeko, ingurumen-kudeaketa egokia egingo da, instalazioa behar bezala diseinatuko da, eta emisio lausoetarako ekintza-plan bat edukiko da.

• Atmosferara botatako emisioen kontrola.

Airea – Baldintza Orokorrak deritzon atalean (Airea – BO), izen bereko apartatua beteko da, eta aurreko taulan ezarritako baldintzak beteko dira.

Airea – Baldintza Orokorrak deritzon atalean (Airea – BO), izen bereko apartatua beteko da.

ATALA: ISURKETAK – BALDINTZA PARTIKULARRAK

SORTUTAKO ISURKETAK SANEAMENDUKO KOLEKTORERA BIDERATUKO DIRA. EZ DAGO BAIMENDUTA JABARI PUBLIKO HIDRAULIKORA INOLAKO ISURKETARIK EGITEA.

AZPIATALA: KOLEKTOREKO ISURKETAK – BALDINTZA PARTIKULARRAK

HONDAKIN-URAK SANEAMENDU-KOLEKTORERA ISURTZEKO BALDINTZA PARTIKULARRAK

Hurrengo baldintzak Aguas del Añarbe–Añarbeko Urak S.A.ren (AGSA) txostenak ezartzen ditu. Txosten hori ingurumen-organoan jaso zen 2026ko ekainaren 22an, teknika erabilgarri onenei buruzko ondorioak ezartzen dituen Batzordearen 2022ko urriaren 11ko (EB) 2022/2110 Betearazpen Erabakira (TEO) egokitzeko berrikuspen-izapidearen esparruan egindako txosten-eskaerari erantzunez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010/75/EB Zuzentarauaren arabera (industria-emisioei buruzkoa), burdinazko metalak eraldatzeko industriarako. Aipatutako txostenak, 3. apartatuan, «Kolektorera isurtzeko bete beharreko baldintzak» ezartzen ditu, eta hau adierazten du.

> «Gaur egun, Tremefil Izaguirre S.A. enpresak AGASAk 2025eko ekainaren 23an emandako isurketa-baimena du.
>
> Añarbeko Uren Mankomunitatearen Saneamendu eta Isurketa Araudia aplikatuz, Tremefil Izaguirre S.A.k Usurbilgo instalazioetan saneamendu-sarera egiten duen isurketak baldintza hauek bete behar ditu:
>
> – Baimendutako hondakin-uren efluenteek Añarbeko Uren Mankomunitatearen Saneamendu eta Isurketa Araudian ezarritakoa bete beharko dute. Aplikatu beharreko mugak I. eranskinean jaso dira.
>
> – Baimendutako hondakin-uren efluenteak desugerketako uren arazketa-sistematik datozenak dira.
>
> – Erabat debekatuta dago saneamendu-sarera isurtzea aurreko puntuan zehaztu ez den beste edozein efluente edo hondakin, bereziki euri-ur garbiak. Etxeko hondakin-urak edo ur beltzak salbuetsita daude, baldin eta, Añarbeko Uren Mankomunitatearen Saneamendu eta Isurketa Araudian ezarritakoaren arabera, saneamendu-sare publikoan onartzen badira baimenik behar izan gabe.
>
> – Edozein arrazoi dela-eta (prozesuak aldatzea, jarduera edo instalazio berriak abian jartzea, etab.) efluente berriak sortzen badira edo baimendutako efluenteak aldatzen badira, enpresak Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak S.A.ri horren berri eman beharko dio. Behar besteko aurrerapenaz egingo da hori, eta isurketa hasi aurretik eskatu eta lortu beharko ditu dagozkion baimenak.

– AGASAk hilero hartu eta aztertuko ditu laginak. Edonola ere, AGASAk maiztasun hori aldatu ahal izango du egoki deritzonean. Laginak enpresaren araztegiko irteeran hartuko dira.

– Enpresak saneamendu- eta arazketa-prestazioak ordaindu beharko ditu, Añarbeko Uren Mankomunitatearen Saneamendu eta Isurketa Araudian eta Etxekoak ez diren erabiltzaileei saneamendu-zerbitzuagatik ematen zaien izaera publiko ez-tributarioko ondare-prestazioa arautzen duen Ordenantzan ezarritako zenbatekoan eta baldintzetan.

– Ondare-prestazio hori kalkulatzeko, instalatutako emariaren edo ebakuazio-ahalmenaren (Qi) balioa hauxe izango da: litro 1 segundoko.

– Isuritako bolumena kuantifikatzeko, enpresaren araztegiko irteeran instalatutako emari-neurgailuan erregistratutako neurketak erabiliko dira.

– Enpresak hauek bidali behar dizkio AGASAri info@agasa.eus helbide elektronikora hiruhileko bakoitzaren hasieran: hondakin-uren kontrol-estazioko irteeran instalatutako emari-neurgailuaren isurketa-bolumenaren totalizatzailearen hileko irakurketak (m^3 guztira), emari-neurgailu horretan erregistratutako eguneko aldiuneko gehieneko emaria (m^3/ordu) eta jasotako ur-kontsumoaren fakturak.

– Isuritako karga kutsatzailea kuantifikatzeko, fakturatutako aldian AGASAk hartutako laginei egindako analisien emaitzak erabiliko dira.

– Enpresak AGASAra bidali beharko ditu, urtero, martxoaren 31 baino lehen, baimendutako kudeatzaileak igorritako egiaztagiriak, araztegiko prentsa-iragazkitik ateratako hondakin solidoak erretiratzeko.»

Gainera, sustatzaileak bere esku dauden isurketa-analisien emaitzen txostenak bidali beharko ditu, baimen honetako IZP – BO eta IZP – BP ataletan ezarritako jarraibideen arabera.

Jarraian, Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak S.A.ren txostenak aipatzen dituen muga aplikagarriak errepikatzen dira.

Parametroak	Emisioen muga-balioak	Unitatea
pHa	5,5-9,5	
Solido esekiak, guztira	600	mg/l
Solido lodiak	Ez dago	
DBO_5	1.000	mg O_2/l
DQO	1.800	mg O_2/l
Tenperatura	40	ºC
Kolorea	1/100	Disoluzioan ez da nabari
Olioak eta koipeak	100	mg/l
Artsenikoa	1	mg/l
Boroa	5	mg/l
Kadmioa	0,2	mg/l
Kromoa, VI	1	mg/l
Kromoa, guztira	4	mg/l
Burdina	25	mg/l
Manganesoa	5	mg/l
Nikela	3	mg/l
Merkurioa	0,05	µg/l

Parametroak	Emisioen muga-balioak	Unitatea
Beruna	1	mg/l
Selenioa	0,5	mg/l
Eztainua	2	mg/l
Kobrea	1	mg/l
Zinka	4	mg/l
Zilarra	1	mg/l
Aluminioa	20	mg/l
Fenolak, guztira	2	mg/l
Formaldehidoa	10	mg/l
Detergenteak (lauril-sulfatoan adierazita)	10	mg/l
Zianuroak, guztira	1	mg/l
Sulfatoak	1.000	mg/l
Sulfuroak	2	mg/l
Nitrogeno amoniakala	40	mg/l
Kjeldahl nitrogenoa, guztira	100	mg/l
Fluoruroak	10	mg/l
Fosforoa, guztira	15	mg/l
Kloruroak	1.500	mg/l
Kloroa	2,5	mg/l
AOX	30	mg/l
Toxikotasuna	50	50 Equitox/m3
Emaria	$Q_{geh}<3Q_{bb}$	-

ATALA: HONDAKINEN EKOIZPENA – BALDINTZA PARTIKULARRAK

LANTEGIAN SORTUTAKO HONDAKINAK EGOKI KUDEATZEN DIRELA BERMATZEKO BALDINTZA PARTIKULARRAK

• Hondakinen ekoizpena – BP betetzea.

Organo honek hondakinen ekoizpena dela-eta onartzen dituen jarduketak –ingurumen-baimen bateratua dutenak– ustiatzeko eta jarduteari uzteko baldintza orokorrak beteko dira (Hondakinen ekoizpena – BO).

• Ekoitzitako hondakinak.

Taula honetan ageri dira sustatzaileak aitortutako hondakin arriskutsuak (izartxoarekin eta EHZ kodearekin adierazita) eta ez-arriskutsuak.

EHZ	Hondakinaren deskribapena	Arriskugarritasuna	Sortze-prozesua	Ekoizpen zenbatetsia (kg/urte)
110105	Kloruro ferrosoa	H8	Desugertze kimikoa	403.000
110113	Koipegabetze azidoa	R6	Ijezketa hotzean	27.800
110106	Azido fosforikoa % 2an	H8	Desugertze kimikoa	1.040
110109	Iragazitako araztegiko lohi ez-organikoak	H5/6	Hondakin-uren tratamendua	7.000
130205	Ura duen olio erabilia	H5	Ijezketa hotzean	26.000

EHZ	Hondakinaren deskribapena	Arriskugarritasuna	Sortze-prozesua	Ekoizpen zenbatetsia (kg/urte)
120144	Mekanizazioko lohiak	H5	Ijezketa hotzean	20.000
130205	Olio erabilia	H5	Ijezketa hotzean	1.000
150202	Xurgatzaileak	H5	Mantentze-lanak	3.000
150110	Metalezko ontziak	H5	Mantentze-lanak	51 unitate
150110	Plastiko eta paperezko ontziak	H5	Mantentze-lanak	391 unitate
200121	Fluoreszenteak	H6/14	Mantentze-lanak	36 unitate
200133	Bateriak eta pilak	H6/14	Mantentze-lanak	Noizbehinkakoa
160504	Aerosol hutsak	H5/3B	Mantentze-lanak	Noizbehinkakoa
120101	Alanbreak eta txatarra	-	Ijezketa	313000
150102	Plastikoak	-	Espedizioa	300
200136	Ekipo informatikoak	-	Zerbitzu orokorrak	Zehaztu gabe
150101	Papera eta kartoia	-	Zerbitzu orokorrak	Zehaztu gabe
070213	Kautxuzko laminak	-	Alanbre-burdinazko biribilkiak biltegiratzea	1500

• Ekoitzitako hondakinak biltegiratzea.

Hondakinak biltegiratzeko gehieneko denbora sei hilabetekoa izango da hondakin arriskutsuetarako, urtebetekoa ezabatzera bideratzen diren hondakin ez-arriskutsuetarako eta bi urtekoa balorizatzera bideratzen diren hondakin ez-arriskutsuetarako.

• Ondorioen dokumentuko 34. TEOtik eratorritako baldintzak.

Hondakinak kudeatzeko plan bat izango da, kudeaketa-sistemaren barruan. Plan horretan, helburu hauek dituzten neurriak jasoko dira:

• Hondakinen sorrera ahalik eta gehien murriztea.

• Hondakinak berrerabiltzea, birziklatzea edo berreskuratzea optimizatzea; eta:

• Hondakinak behar bezala ezabatzen direla bermatzea.

Sortutako txatarra burdina eta altzairua ekoizteko erabiliko da. Prozedura hori instalazioan nahiz instalaziotik kanpo egin daiteke.

Hondakin oliotsuak balorizazio-eragiketa batera bideratuko dira.

ATALA: LURZORUA – BALDINTZA PARTIKULARRAK

LURZORUA ETA LURPEKO URAK BABESTEKO BALDINTZA PARTIKULARRAK

• Lurzorua – BO betetzea.

Organo honek lurzorua dela-eta onartzen dituen jarduketak –ingurumen-baimen bateratua dutenak– ustiatzeko eta jarduteari uzteko baldintza orokorrak beteko dira (Lurzorua – BO).

• Baldintza bereziak:

Tremefil Izaguirre S.A.k garatutako jarduera nagusiaren EJSN kodea 24.32 da.

Tremefil Izaguirre S.A.k lurzorua babesteko beharrezko neurriak hartu beharko ditu.

• Kubeta hondakin-uren araztegian.

• Kubetak desugertzeko eta ijezketako eremuetako biltegietan eta araztegiko prozesuko produktuen biltegian.

• Kanpoaldean biltegiratutako alanbre-burdina estaltzea.

Aurrekoa gorabehera, eta Batzordearen 2022ko urriaren 11ko (EB) 2022/2110 Betearazpen Erabakiak (burdinazko metalak eraldatzeko industriarako teknika erabilgarri onenei (TEO) buruzko ondorioak ezartzen dituenak) 4. TEOn ezarritakoa betez, teknika hauek aplikatu beharko dira:

• Ihesak eta jarioak prebenitzeko eta kontrolatzeko plan bat ezartzea eta betearaztea.

• Olioa ez ateratzeko moduko upategi edo erretilu hermetikoak erabiltzea.

• Azidoen isuriak eta jarioak prebenitu eta manipulatzea.

ATALA: ZARATA – BALDINTZA PARTIKULARRAK

ZARATAREN INGURUKO BALDINTZA PARTIKULARRAK

• Zarata – BO betetzea.

Organo honek zarataz onartzen dituen jarduketak –ingurumen-baimen bateratua dutenak– ustiatzeko eta jarduteari uzteko baldintza orokorrak beteko dira (Zarata – BO).

• Emisioen muga-balioak.

Ondorengo indize akustikoak gaindi ez daitezen beharrezko neurri guztiak ezarriko dira:

– Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den LAeq,60 segundo zarata-indizeak ezin izango du inoiz ere 40 dB(A) gainditu, 07:00ak eta 23:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta LAmax indizeak 45 dB(A) ere.

– Maila hauei egokitu behar zaie jarduera: etxebizitzen barrualdean entzungo den LAeq,60 segundo zarata-indizeak ezin izango du inoiz ere 30 dB(A) gainditu, 23:00ak eta 7:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta LAmax indizeak 35 dB(A) ere.

– Jarduerak ezin du 1. taulan adierazitakoa baino zarata handiagoa atera, 4 m-ko altueran neurtuta (egoera berezietan izan ezik; halakoetan, behar beste altuera hartuko da, apantailamenduak saihesteko), industria-esparruaren kanpoaldeko itxituraren perimetro osoan.

Zarata-indizea	dB(A)
L_d	75
L_e	75
L_n	65

1. taula. Industria-esparruaren kanpoaldeko itxituran bete beharreko zarata-mailak.

Abian den instalazioak, 1. taulan finkatutako mugak betetzeaz gain, ez du eguneko inolako baliotan (LAeq,d, LAeq,e eta LAeq,n) 1. taulan adierazitako balioak baino 3 dB-etik gorako gehikuntzarik gainditu ko.

Gainera, jardueraren gainerakotik bereizitako prozesuaren jardun modu bat baldin badago, jardun modu horri lotutako zarata-maila bat zehaztu beharko da (LAeq,Ti), zeinean Ti baita jardun modu horren iraupen-denbora. Maila horrek ez ditu 1. taulan finkatutako balioak 5 dB-etan gainditukо.

Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzerakoan egiten den zaratak ez du handituko akustikoki oso sentikorrak diren aldeetako zarata-maila.

• Zarataren kontrola.

Indize akustikoen ebaluazioak egin beharko dira hiru urtetik behin: Ld, Le, Ln, Laeq, Ti eta Laeq, 60 segundo.

• Zarataren kudeaketa-plana.

Zaratagatik eta bibrazioengatik eragozpenak sortzen badira eta eragozpen horiek daudela egiaztatzen bada, zarata eta bibrazioak kudeatzeko plan bat gauzatu eta berrikusi beharko da, ingurumena kudeatzeko sistemaren zati gisa, Batzordearen 2022ko urriaren 11ko (EB) 2022/2110 Betearazpen Erabakiak (burdinazko metalak eraldatzeko industriarako teknika erabilgarri onenei buruzko ondorioak ezartzen dituenak) 32. TEOn ezarritakoaren arabera.

ATALA: INGURUMENA ZAINTZEKO PROGRAMA – BALDINTZA PARTIKULARRAK

INGURUMENA ZAINTZEKO PROGRAMAREN INGURUKO BALDINTZA PARTIKULARRAK

• Ingurumena zaintzeko programa – BO betetzea.

Organo honek ingurumenaren zaintza dela-eta onartzen dituen jarduketak –ingurumen-baimen bateratua dutenak– ustiatzeko eta jarduteari uzteko baldintza orokorrak beteko dira (IZP – BO).

• Ingurumena zaintzeko programan entregatu beharreko informazioa.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten txostenen eta analisien emaitzak behar bezala erregistratu behar dira, eta ingurumen-organo honetara bidali, Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena zaintzeko Sailaren web-orrian ezarrita dagoen bidalketa-prozedura telematikoari jarraikiz eta bidalketa-mota bakoitzari buruz emandako jarraibideen arabera: https://www.euskadi.eus/baimena/ibb-ippc/web01-a2inguru/eu//

Horrela, IZP entregatzeko prozedura urte osoan eta hurrengo urteko martxoaren 31ra arte dago irekita, sustatzaileak informazioa eskuratu bezain laster jaso ahal izateko. Aurrekoa ez litzaieke aplikatuko urte osoari buruzko txostenei, urte amaieran entregatu beharko baitira.

Ezarritako baldintzak urratzen diren kasuetan bidali beharko da berehalako jakinarazpena ingurumen-organora, gertatutakoaren berri izan ondoren; horretarako, helbide elektroniko hau erabili beharko da: inspeccionambiental@euskadi.eus

Horrez gain, urtean behin baino gehiagotan egiten diren kontrolak kasuan kasuko kontrola egiten den urteari dagokion programaren barruan baino ez dira bidaliko.

Emaitzak martxoaren 31 baino lehen bidaliko dira, eta txosten bat aurkeztu beharko da zaintza-programaren emaitzekin batera. Txosten horretan jasoko dira babes- eta zuzenketa-neurrien eta prozeduren kontrolerako eta ingurumenaren kalitaterako sistemen funtzionamendua eta emaitzen analisia, epe horretan izandako gorabehera nagusiak bereziki aipatuta, haien balizko kausa eta konponbideak azalduz; halaber, laginak nola hartu diren zehaztuko da, aldez aurretik hala egin ez bada.

• Jardueraren TEOei lotutako ingurumen-jardunaren adierazleak eta mailak kontrolatzea.

Sustatzaileak jardueraren funtzionamenduaren parametro adierazleen jarraipena egingo du urtero, ingurumenean duen eraginari dagokionez (adierazleak hurrengo tauletan azaltzen dira), eta emaitzak aurkeztu beharko ditu, urte horretako ingurumena zaintzeko programarekin batera.

– Jardueraren adierazleak:

Adierazlea	Unitatea
Ekoizpena, guztira	Urteko tonak
HCl kontsumoa	Kontsumitutako HCl (kg) / alanbre-burdina (tona metriko)
Olio-kontsumoa	Kontsumitutako olioa (kg) / alanbre-burdina (tona metriko)
Ur-kontsumoa	Kontsumitutako ura (m3) / alanbre-burdina (tona metriko)
Elektrizitatearen kontsumoa	Kontsumitutako elektrezitatea (kWh) / alanbre-burdina (tona metriko)
Gas-kontsumoa	m3/ tona alanbre-burdin
Hondakin ez-arriskutsu gisa sortutako txatarra	Txatarra (kg) / alanbre-burdina (tona metriko)
Hondakin arriskutsuak	Agortutako azidoa (l) / alanbre-burdina (tona metriko)
	Araztegiko lohia (kg) / alanbre-burdina (tona metriko)
	% lohi baliotu / sortutako lohia
Lurzoruaren kutsadura	Eragina duten puntu-kopurua / ikuskapena
Istripuzko isurketekin lotutako gorabeheren kopurua	Urteko gorabehera-kopurua

– TEOei lotutako ingurumen-jardunaren mailak:

Titularrak eguneratuta edukiko ditu taula honetako TEOei lotutako ingurumen-jardunaren mailen jarraipen-erregistroak.

TEOei lotutako ingurumen-jardunaren mailak (TEOi lotutako kontsumo-mailak)			
Adierazlea	BATC-FMP erreferentzia	Unitatea	TEOi lotutako kontsumo-mailak (urteko batezbestekoa)
Energia-kontsumo espezifikoa suberaketan, hotzeko ijezketaren ondoren	11. TEO, 1.2. koadroa	MJ/t	1200
Uraren berariazko kontsumoa	19. TEO, 1.6. koadroa	m3	10
Ijezketako berariazko energia-kontsumoa	44. TEO, 1.24. koadroa	MJ/t	300

ATALA: PRTR – BP

KUTSATZAILEEN ERREGISTROARI BURUZKO BALDINTZA PARTIKULARRAK

• PRTO – BO betetzea.

Organo honek kutsatzaileen erregistroa dela-eta onartzen dituen jarduketak –ingurumen-baimen bateratua dutenak– ustiatzeko eta jarduteari uzteko baldintza orokorrak beteko dira (PRTR – BO).

ATALA: EZOHIKO EGOERAK – BALDINTZA PARTIKULARRAK

PREBENTZIO-NEURRIEI ETA EZOHIKO EGOERETAN FUNTZIONATZEKO BALDINTZEI BURUZKO BALDINTZA PARTIKULARRAK

• Ezohiko egoerak – BO betetzea.

Organo honek ezohiko egoeretan funtzionatzeko onartzen dituen jarduketak –ingurumen-baimen bateratua dutenak– ustiatzeko eta jarduteari uzteko baldintza orokorrak beteko dira (Ezohiko egoerak – BO).

• Jarduteari uztea.

Ezohiko egoerak – BO atalean aipatutako kutsatutako lurzoruei buruzko indarreko araudiaren araberako jardueraren kodea 24.32 da, lurzorua kutsa dezakeen jarduera baita.

• Arauz kanpoko funtzionamendurako prebentzio-neurriak eta jarduketak.

Baldin eta instalazioetan lohien tratamendua badago, haietatik isuritako ura berriro bideratuko da arazte-instalazioko sarrerara, tratamendua jaso dezan.

Ezohiko egoerak – BO ataleko izen bereko aparatua beteko da.

ATALA: INGURUMEN-ERANTZUKIZUNA – BALDINTZA PARTIKULARRAK

INGURUMEN-ERANTZUKIZUNAREN INGURUKO BALDINTZA PARTIKULARRAK

• Ingurumen-erantzukizuna – BO betetzea.

Organo honek ingurumen-erantzukizuna eta finantza-bermea direla-eta onartzen dituen jarduketak –ingurumen-baimen bateratua dutenak– ustiatzeko eta jarduteari uzteko baldintza orokorrak beteko dira (Ingurumen-erantzukizuna – BO).

ATALA: TEO – BALDINTZA PARTIKULARRAK

BURDINAZKO METALAK ERALDATZEKO INDUSTRIARAKO TEKNIKA ERABILGARRI ONENEI BURUZKO BALDINTZA PARTIKULARRAK

Jarraian, Tremefil Izaguirre S.A.ri aplikatu beharreko TEOak erakusten dira, jardueraren ezaugarrien eta Batzordearen 2022ko urriaren 11ko (EB) 2022/2110 Betearazpen Erabakiak –teknika erabilgarri onenei buruzko ondorioak ezartzen dituenak– ezarritakoaren arabera, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010/75/EB Zuzentarauaren jarraikiz, burdinazko metalak eraldatzeko industriarako.

TEO zk.	Deskribapena
1.1	Burdinazko metalak eraldatzeko industriarako TEOei buruzko ondorio orokorrak
1.1.1.	Ingurumen-jardun orokorra
1. TEO	Ingurumena kudeatzeko sistema bat (IKS) prestatzea eta ezartzea.
2. TEO	Prozesuan erabilitako substantzia kimikoen eta ur-fluxuen eta hondakin-gasen inbentario bat sortzea, mantentzea eta aldian behin berrikustea (bereziki, aldaketa esanguratsu bat gertatzen bada), IKSren zati gisa.
3. TEO	Substantzia kimikoak kudeatzeko sistema bat (SKKS) prestatzea eta ezartzea IKSren zati gisa.
4. TEO	Lurrerako eta lurpeko uretarako emisioak saihesteko edo murrizteko teknikak: ihesak eta jarioak prebenitzeko eta kontrolatzeko plan bat ezartzea; olioa ez ateratzeko moduko upategi edo erretilu hermetikoak erabiltzea; azido-jarioak eta ihesak prebenitzea eta manipulatzea.
5. TEO	Lurrerako eta lurpeko uretarako emisioak saihesteko edo murrizteko teknikak.

TEO zk.	Deskribapena
1.1.2.	Monitorizazioa
6. TEO	TEO honetan, gutxienez urtean behin monitorizatu behar dira: – uraren, energiaren eta materialen urteko kontsumoa; – uretan sortzen diren hondakin-urak; – sortutako hondakin mota bakoitzaren eta ezabatutako hondakin mota bakoitzaren urteko kantitatea.
7. TEO	Atmosferara bideratutako emisioak monitorizatzea, TEOan ezarritako maiztasunarekin eta araudiari jarraikiz.
8. TEO	Uretara egindako emisioak monitorizatzea, TEOan ezarritako maiztasunarekin eta araudiari jarraikiz.
1.1.4.	Energia-efizientzia
10. TEO	Instalazioaren energia-efizientzia orokorra handitzea, IKSren zati gisa energia-efizientziarako plan bat eta energia-balantzearen erregistro bat ezarrita.
11. TEO	Beroketaren efizientzia energetikoa hobetzeko teknikak.
1.1.5.	Efizientzia materialen kontsumoan
12. TEO	Koipegabetzean materialen efizientzia hobetzeko eta higatutako koipegabetze-disoluzioaren sorrera murrizteko teknikak.
13. TEO	Desugertzean materialen efizientzia areagotzeko eta higatutako desugertze-azidoaren sorrera murrizteko teknikak, hura berotzen denean.
14. TEO	Desugertzean materialen efizientzia hobetzeko eta higatutako desugertze-azidoaren sorrera murrizteko teknikak.
18. TEO	Higatutako desugertze-azidoak berreskuratzea, higatutako desugertze-azidoaren kantitatea murrizteko (ezabatzekoa zena).
1.1.6.	Ur-kontsumoa eta hondakin-uren sorrera
19. TEO	Ur-kontsumoa optimizatzeko, birziklagarritasuna hobetzeko eta sortutako hondakin-uren bolumena murrizteko teknikak.
1.1.7.	Atmosferarako emisioak
1.1.7.1	Berotzetik atmosferara egiten diren emisioak
20. TEO	Berotzetik atmosferara isurtzen diren partikulak saihesteko edo murrizteko teknikak, fosilak ez diren energia-iturrietatik sortutako elektrizitatea erabiliz.
21. TEO	Fosilak ez diren energia-iturrietatik edo sufre gutxi duten erregaietatik sortutako elektrizitatea erabiltzea, berotzean atmosferara egiten diren SO2 emisioak saihesteko edo murrizteko.
22. TEO	Fosilak ez diren energia-iturrietatik edo tekniketatik sortutako elektrizitatea erabiltzea, berotzearen ondorioz atmosferara egiten diren NOX emisioak murrizteko.
1.1.7.2	Koipegabetzean atmosferara egiten diren emisioak
23. TEO	Hotzean ijezteko koipegabetzetik eta beroan murgilduz xaflak estaltzetik sortutako hondar-gasak tratatzeko teknikak.
1.1.7.3	Desugerketatik atmosferara egiten diren emisioak
24. TEO	Desegurtzearen ziozko partikulek, azidoek (HCl, HF, H2SO4) eta SOx-ek beroko ijezketan, hotzeko ijezketan, beroko murgiltze bidezko estalduran eta trefilatzean atmosferara egiten dituzten emisioak murrizteko teknikak.
1.1.7.4	Beroko murgiltzeetatik atmosferara egiten diren emisioak
27. TEO	Atmosferara laino oliotsua ez isurtzeko eta kargaren gainazala olioztatzean olio-kontsumoa murrizteko teknikak.
1.1.8.	Emisioak uretara
30. TEO	Olioz edo koipez kutsatutako uretan kutsatzaile organikoen karga murrizteko, fase organikoa eta urtegia bereiztean datza (ondoren, tratatu egingo da).
31. TEO	Hondakin-urak tratatzeko teknikak, uretara egiten diren emisioak murrizteko.
1.1.9.	Zarata eta bibrazioak
32. TEO	Zarata eta bibrazioak kudeatzeko plan bat ezartzea, gauzatzea eta aldian-aldian berrikustea, IKSren zati gisa.
33. TEO	Zarata eta bibrazioak saihesteko edo murrizteko teknikak.
1.1.10	Hondakinak
34. TEO	Deuseztatzera bideratutako hondakinen kopurua murrizteko teknikak, metalak, metal oxidoak, lohi oliotsua eta hidroxido lohiak desagerraraztea saihestuz.
1.3	Hotzeko ijezketari dagozkion TEOei buruzko ondorioak
1.3.1.	Energia-efizientzia
44. TEO	Ijezketan efizientzia energetikoa hobetzeko teknikak.

TEO zk.	Deskribapena
1.3.2.	Materialen efizientzia
45. TEO	Materialen efizientzia handitzeko eta ijezketatik datozen eta deuseztatzera bideratzen diren hondakinen kopurua murrizteko teknikak.
1.3.3.	Atmosferarako emisioak
48. TEO	Ijeztearen, iraoketa hezearen eta akaberaren ondoriozko laino oliotsuak atmosferara gutxiago isurtzeko teknikak.

Aurreko taulan jasotako teknikak ezarri beharko dira, eta ingurumen-organo honen esku utzi atal honetan ezarritakoa betetzeko egindako jarduketen froga nahikoak.

IPPC JARDUERAK USTIATZEKO ETA JARDUTEARI UZTEKO BALDINTZA OROKORREN ERANSKINA

Sustatzaileak jarduerak ustiatzeko eta jarduteari uzteko bete beharko dituen baldintzak eta betekizunak eranskin honetan nahiz jarduerak ustiatzeko eta jarduteari uzteko baldintza partikularren (BP) eranskinean jasotakoak izango dira.

ATALA: AIREA – BALDINTZA OROKORRAK

AIREAREN KALITATEA BABESTEKO BALDINTZA OROKORRAK

• Baldintza orokorrak.

Lantegia ustiatzean, ez dira gaindituko ingurumen-baimen bateratu honetan ezarritako gehieneko emisioen muga-balioak, eta ingurumen-organo honek ezarritako betekizun teknikoak bete beharko dira.

Prozesuan atmosferara isurtzen den gai kutsatzaile oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanpora bideratu beharko da, behar denean, gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren, zeina emisio horien ezaugarrien arabera diseinatutako baita.

Arau orokor honetatik salbuetsi ahalko dira emisio konfinatu gabeak, baldin eta teknikoki edota ekonomikoki atzeman ezin badira edo ingurunean oso eragin txikia dutela frogatuta badago.

Neurri egokiak hartuko dira istripuz gertatutako emisioen probabilitatea txikitzeko, eta haien efluenteek giza osasunerako nahiz segurtasun publikorako arriskurik ez izateko. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatu eta mantenduko dira; alegia, efluenteen tenperatura- eta konposizio-aldaketei efikaziaz aurre egiteko moduan. Era berean, ahalik eta gehien laburtuko dira instalazio horiek gaizki dabiltzan edo erabili ezin diren aldiak.

Atmosfera kutsa dezaketen jarduerak gauzatzen dituzten instalazioak arautzen dituen abenduaren 27ko 278/2011 Dekretuaren 5. artikuluak jasotako betebeharrak bete beharko dituzte instalazioaren titularrek.

Organo honek foku berri bat baimendu ondoren, abiarazten denetik sei hilabete igaro baino lehen, ingurumen-kontroleko entitate batek egindako hasierako ILE txostena igorri beharko da. Nolanahi ere, epe hori luzatzeko eskatu ahalko dio ingurumenaren gaineko organoari, betiere behar bezala justifikatutako arrazoiak direla medio.

• Atmosfera kutsa dezaketen jarduerak.

Urtarrilaren 28ko 100/2011 Errege Dekretuaren (atmosfera kutsa dezaketen jardueren katalogoa eguneratzekoa eta katalogoa aplikatzeko oinarrizko xedapenak finkatzekoa) katalogoan sartutako instalazioan egingo dira jarduerak.

• Emisio-iturriak identifikatzea. Katalogazioa.

Instalazioak Airea – BP atalean jasotako fokuak ditu, Airearen kalitateari eta atmosfera babesteari buruzko azaroaren 15eko 34/2007 Legean adierazitako atmosfera kutsa dezaketen jardueren katalogoan jasota daudenak.

Emisio lausoak sortzen dituzten eta atmosfera kutsa dezaketen jarduerei gagozkiela, administrazioak irregulartasunak hautematen baditu, hondakin-gasen irteera egokitzea eskatu ahal izango du, irteera hori baimenean emisio kanalizatu gisa jaso dadin, dagozkion neurketa-muga eta -maiztasunekin.

• Emisioen muga-balioak.

Lantegia ustiatzean, bermatu beharko da atmosferara egingo diren emisioek ez dituztela gainditu Airea – Baldintza partikularrak ataleko taulan jasotako emisioetarako ezarritako muga-balioak.

Emisio-balioak betetzen diren ebaluatzeko, abenduaren 28ko 278/2011 Dekretuaren 9. artikuluak ezartzen duena beteko da. Ikusten bada emisioen muga-balioren bat betetzen ez dela, behar diren zuzenketa-neurriak hartu beharko dira luzamendurik gabe, eta, berehala, ez-betetzearen, zuzenketa-neurrien eta haien epeen berri eman beharko zaio ingurumenaren arloko eskumenak dituen sailari.

• Gasak biltzeko eta husteko sistemak.

Fokuetako hondakin-gasak kanporatzeko tximiniak ez dira egongo Airea – BP ataleko taulan ezarritako kota gorenetik behera.

Atmosferaren arloko eskumenak dituen sailak argitaratutako jarraibide tekniko guztiak bete beharko dituzte elementu hauek: atala, neurketa-gunea, laginketa-guneak, neurketa-portuak, irisgarritasuna eta fokuen segurtasuna eta zerbitzuak.

• Emisio lausoak.

Instalazioan emisio lauso edo barreiatuko fokuak identifikatzen badira, neurri hauek hartu beharko dira:

Zamalanak. Garraioa:

– Zamalanak eslingak erabiliz egingo dira:

* Materiala kargatzeko eta deskargatzeko maniobrak (zamalanak) ahalik eta gehien murriztuko dira.

* Materiala deskargatzen denean, erorketa-altuera ahalik eta gehien murriztuko da.

* Koilara edo atzaparra erabat itxiko da, materiala jaso ondoren.

* Koilara pilatan behar adina denbora utzi behar da deskargatu ondoren.

– Zamalanak egitea pala mekanikoa erabiliz:

* Materiala kargatzeko eta deskargatzeko maniobrak ahalik eta gehien murriztuko dira.

* Materiala deskargatzen denean, erorketa-altuera ahalik eta gehien murriztuko da.

* Kamioiak kargatzean, pala kamioiaren ohean ahalik eta gehien sartzen saiatu behar da.

– Materiala garraiatzen duten kamioiek olanez edo hautsa isurtzea eragozten duten beste elementu batzuez estalita egon beharko dute.

– Era berean, ibilgailuen abiadura mugatuko da, eta ibilgailuen zirkulazio-eremuek zolatuta egon beharko dute.

Bideak, lurzorua eta makinak garbitzea:

– Bideak, lurzorua eta makinak aldizka garbituko dira.

– Bideak eta lurzoruak garbitzeko, ekortzeko eta baldekatzeko makinak erabiliko dira, eta baldekatze-ekipoa eta ekorketa-ekipoa txandakatuko dira, hautsa barreiatu ez dadin.

Emisio lausoak minimizatze aldera, emisioak biltzeko sistemen mantentze-lan egokia egingo da; horrez gain, besteak beste, lantegia garbituko da, kanpoko ateak eta pabiloiarenak itxiko dira, eta ingurumen-jardunbide egokiak eta teknika erabilgarri onenak aplikatuko dira.

Administrazioak foku lausoen irteera egokitzea eskatu ahalko du, baimenean emisio kanalizatu gisa jaso dadin, dagozkion mugekin eta neurketa-maiztasunekin.

• Atmosferara botatako emisioen kontrola.

Instalazioak emisioak kontrolatu beharko ditu, baimeneko AIREA – BP ataleko taulan ezarritakoari jarraikiz.

Aipatutako neurketa guztiak administrazioaren II. mailako lankidetza-entitate batek egin beharko ditu, urriaren 16ko 212/2012 Dekretuan jasotzen den bezala; horrez gain, aldizkako neurketa horiei buruzko txostenek Ingurumeneko sailburuaren 2012ko uztailaren 11ko Aginduan eskatzen diren betekizun guztiak bete beharko dituzte.

Halaber, Airea – BP atalean azaldutako emisio-foku baten kontrola egin behar den urtean, foku horrek urtean hamabi aldiz baino gutxiagoko batez besteko maiztasunaz funtzionatzen badu, emisio bakoitzak ordubete baino gehiago irauten duela, eta, gainera, funtzionamendu hori lantegiaren funtzionamendu-denboraren ehuneko bostetik beherakoa bada, urte horretan ez da beharrezkoa izango foku horren kontrolik egitea, eta hurrengo urtean egin beharko da, kontroletik salbuesteko baldintzek irauten ez badute. Inguruabar hori urteko ingurumena zaintzeko programan, dagokion urtekoan, justifikatu beharko da.

Foku ez-sistematikoetako bat urtean batez beste hamabi alditan baino gehiagotan funtzionatzen hasten bada eta aldi bakoitzak ordubete baino gehiago irauten badu, edo, maiztasuna edozein dela ere, emisioen iraupena orokorrean lantegiaren funtzionamendu-denboraren ehuneko bostetik gorakoa bada, emisio-foku sistematiko gisa araupetu beharko da.

– Ateratako emaitzen erregistro bat egingo da eguneratutako dokumentazioarekin, betiere xedapen hauetan ezarritakoari jarraituz: Atmosfera kutsa dezaketen jardueren katalogoa eguneratzen eta hura ezartzeko oinarrizko xedapenak finkatzen dituen urtarrilaren 28ko 100/2011 Errege Dekretuaren 8. artikulua eta Atmosfera kutsa dezaketen jarduerak egiten dituzten instalazioak arautzen dituen abenduaren 27ko 278/2011 Dekretuaren III. eranskina.

Erregistro hori eguneratuta eta ingurumen-ikuskatzaileen eskura egongo da.

Jardueraren kontrolean sortutako dokumentazioa ingurumen-organoari igorriko zaio, IZP – BO atalean adierazitakoaren arabera.

ATALA: HONDAKINEN EKOIZPENA – BO

LANTEGIAN SORTUTAKO HONDAKINAK EGOKI KUDEATZEN DIRELA BERMATZEKO BALDINTZA OROKORRAK

Atal honek hondakinak prebenitzeko eta ekoizteko baldintzak ezartzen ditu, arlo horretako araudi sektorialak ekoizle gisa identifikatzen dituenei aplikatu beharrekoak. Sustatzaileak sortutako hondakinei aplikatuko zaie, baimenaren Hondakinen ekoizpena – BP atalean zehazten direnei.

Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legeak araututakoaren arabera eta aplikatzekoak diren berariazko araudiek agindutakoaren arabera kudeatuko dira instalazioetan sortutako hondakinak.

Hondakinen ekoizleek neurri hauek bete beharko dituzte:

• Identifikazioa eta karakterizazioa.

Karakterizazioa:

Sortutako hondakinak identifikatu eta karakterizatu beharko dira, haien izaera eta helmugarik egokiena zehazteko.

Hondakinen arriskugarritasuna Europako Batzordearen (EB) 1357/2014 Erregelamenduan jasotako sailkapenaren araberakoa izango da (1357/2014 Erregelamendua, 2014ko abenduaren 18koa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentarauaren III. Eranskina ordezten duena, hondakinei buruzkoa, eta zuzentarau jakin batzuk indargabetzen dituena). Karakterizatu beharreko hondakinak Hondakinen ekoizpena – BP atalean adierazten dira, edo ingurumen-organoaren berariazko eskaerari erantzuteko dira. Edonola ere, karakterizazioa egiteko 1357/2014 Erregelamendua aplikatzeko irizpideen gida erabiliko da. Esteka honetan dago eskuragarri:

https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/guia1357/eu_def/adjuntos/guia1357-2014.pdf

Ildo horretan, sustatzaileak ingurumen-organoari eskabidea egin ahal izango dio Inguruneteko «Dokumentuak bidaltzea – DOC» («Hondakinen sailkapena» mota) prozeduraren bidez.

Jatorrian bereiztea.

Espresuki debekatuta dago sortzen diren tipologia ezberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin edota efluente batzuekin nahastea. Hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira, eta haiek biltzeko eta biltegiratzeko baliabide egokiak jarriko dira, aipatutako nahasketa horiek ekiditeko.

Kodifikazioa.

Hondakin bakoitzari dagokion izena eta kodea ezartzeko, hondakinaren beraren egoera eta ezaugarriak hartuko dira kontuan, baimenaren izapidetzearen esparruan dokumentatuak, eta Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko Erabakia hartu beharko da kontuan, hondakinen zerrendari buruzko 2000/532/EE Erabakia aldatzen duena.

Sailkapenaren kontrola.

Hondakin arriskugabe gisa identifikatutako kode batekin nahiz hondakin arriskutsuaren kode batekin identifikatutako hondakinen kasuan, lehenengoz erretiratu aurretik, behar bezala sailkatu dela justifikatu beharko da. Horretarako, arrisku-ezaugarriren bat erregistratzen duten jakiteko ezaugarri analitikoak aurkeztu beharko dira, Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko (EB) 1357/2014 Erregelamenduan (2008/98/EB Zuzentarauaren III. eranskina ordezten duena) ezarritako irizpideen arabera.

Emaitzen arabera, aldian behingo karakterizazio-lanak ezarri ahal izango dira, arriskugarritasunaren karakterizazio horren baliozkotasuna zehazteko.

Baldin eta aurreikusten bada hondakindegi baimenduan deuseztatzea dela hondakinen azken helmuga, orduan, hondakin horiek karakterizatuko dira, Kontseiluaren 2002ko abenduaren 19ko 2003/33/EE Erabakiak (zeinaren bidez ezarri baitira hondakinak hondakindegietan hartzeko irizpideak eta prozedurak) xedatutakoari jarraikiz, eta Hondakinak hondakindegietan biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuak ezarritako jarraibideen arabera.

Ekoitzitako kantitateak.

Instalazioan sortutako hondakinen kantitatea, ingurumen-baimenetan jasotakoa, orientagarria da soilik, kontuan hartuta jardueraren ekoizpen-gorabeherak eta ekoizpenaren eta sortutako hondakinen arteko erlazioa. Datu horiek jardueraren adierazleetan ageri dira.

Instalazioan aldaketak aurreikusten direnean eta sortutako hondakinen kantitateak handitzea aurreikusten denean, eta, beraz, aurretik ezarritako biltegiratze- eta ontziratze-baldintzak aldatu behar direnean, baimena egokitzea eskatu beharko da.

• Manipulatzea, ontziratzea, etiketa jartzea eta biltegiratzea.

Bilketa-sistemak:

Hondakinak biltzeko sistemak independenteak izango dira, baldin eta, tipologia dela-eta, jario baten ondorioz nahasiz gero arriskutsuago bihur badaitezke edo kudeaketa zail badezakete.

Nahastea debekatzea:

Espresuki debekatuta egongo da sortutako hondakinen tipologia desberdinak nahastea, haien artean nahiz beste hondakin edo efluente batzuekin.

Biltegiratze-baldintza orokorrak:

Hondakinak biltegiratzeko eremuak edo eremuek lurzoru estankoa izango dute. Haien egoera fisiko, likido edo oretsua dela-eta, edo haien inpregnazio-mailarengatik isurketak eragin edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakin arriskutsuentzat ontziak edo bilketa-sistema egokiak jarriko dira izan litezkeen jarioak kanpora isurtzea saihesteko. Hauts-itxurako hondakinen kasuan, hondakinak euri-urarekin bustitzea edo haizeak herrestan eramatea eragotziko da, eta, beharrezkoa izanez gero, estali egingo dira.

Hondakin arriskutsuak biltegiratuz gero, aterpean egon beharko dute, eta isurketak eta jarioak atxikitzeko sistemak izan beharko dituzte.

Produktu kimikoen biltegiratze-baldintzak.

Likido sukoiak eta erregaiak, korrosiboak edo toxikoak dituzten hondakinak biltegiratu behar izanez gero, edo ontzi mugikorretan biltegiratu behar izanez gero –gasak barne–, erreferentzia tekniko gisa erabiliko dira ekainaren 23ko 656/2017 Errege Dekretuak (produktu kimikoak biltegiratzeko erregelamendua eta haren jarraibide tekniko osagarriak, MIE APQ 0tik 10era bitartekoak, onartzen dituenak) ezarritako eraikuntza-baldintza eta baldintza tekniko berberak.

Ontziratzea eta etiketatzea:

Hondakin arriskutsuak ontziratzeko, indarrean dagoen araudian ezarritako segurtasun-arauak bete beharko dira.

Hondakin arriskutsuak dauzkaten ontziek eta ontzikiek etiketa argia, irakurgarria eta ezabagaitza eduki beharko dute, eta itxita egon beharko dute kudeatzaileari eman arte, edukiak jariatuta edo lurrunduta gal ez daitezen.

Hondakin arriskutsuak dituzten ontzien etiketan, datu hauek jaso beharko dira:

– Hondakinaren kodea eta deskribapena, eta arriskugarritasun-ezaugarrien kodea eta deskribapena.

– Hondakinen ekoizlearen edo edukitzailearen izena, ingurumeneko identifikazio-zenbakia (aurrerantzean, NIMA), posta-helbidea eta helbide elektronikoa, eta telefono-zenbakia.

– Hondakinak zein egunetan utzi diren.

– Hondakinek dituzten arriskuen izaera, Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008ko abenduaren 16ko (EE) 1272/2008 Erregelamenduan deskribatutako piktogramen bidez adieraziko dena.

Biltegiratze-denbora:

Ingurumen-baimen bateratuan adierazitako hondakinen biltegiratze-denbora Hondakinen ekoizpena – BP atalean zehaztutakoa izango da.

Salbuespenezko kasuetan, ingurumen-organoak epe hori aldatu ahalko du, behar bezala justifikatutako arrazoiak direla medio, baldin eta giza osasuna eta ingurumena babestuko direla bermatzen bada.

• Kudeaketa-hierarkiaren aplikazioa.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraikiz, teknikoki, ekonomikoki eta ingurumenaren aldetik bideragarria denean, hondakinak ez sortzen saiatu beharko da, eta haien helmugak lehenetsiko dira, araudian ezarritako kudeaketa-hierarkiaren arabera.

Hondakinak deuseztatzeko ezinbestekoa izango da aldez aurretik behar bezala justifikatzea haiek balorizatzea ez dela bideragarria teknikoki, ekonomikoki edo ingurumenaren aldetik.

Birsortzea edo berrerabiltzea lehenetsiko da balorizatzeko beste edozein modu material edo energetikoren aurretik.

• Autosufizientziaren eta hurbiltasunaren printzipioak aplikatzea.

Hondakinak tratatzeko instalazio baimenduak baldin badaude Euskal Autonomia Erkidegoan, hurbilen dauden instalazio horietara bidaliko dira lehentasunez, autosufizientziaren eta hurbiltasunaren printzipioei jarraituz.

• Finantza-bermea.

Apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 20.6 artikuluaren arabera, urtean 10 tona hondakin arriskutsu baino gehiago sortzen dituzten ekoizleek aseguru bat edo bestelako finantza-berme bat sinatu beharko dute beren jarduerak, haien ezaugarriak, arriskugarritasuna eta arrisku potentziala kontuan hartuta, sor ditzakeen erantzukizunak estaltzeko.

• Dokumentuen kudeaketa.

Dokumentu hauek formalizatu beharko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eskura jarritako kanal, sistema edo aplikazio informatikoetan.

Baimen honetako IZP – BO ataleko «Ingurumena zaintzeko programan entregatu beharreko informazioa» apartatuko jarraibideen arabera entregatuko dira.

Hondakinaren arriskugarritasunaren karakterizazioa.

Atal honetako «Karakterizazioa» apartatuan jasotakoaren arabera egingo dira.

Tratamendu-kontratua:

Hondakin bat entregatzeko, aldez aurretik tratamendu-kontratu bat formalizatu beharko da ekoizlearen eta kudeatzaile baimenduaren artean. Kontratu horrek hondakina onartzeko baldintzak ezarri beharko ditu, eta Estatuaren lurraldearen barruko hondakinen lekualdaketa arautzen duen ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretuaren 5. artikuluaren edukia izango du.

Tratamendu-kontratua bakarra izango da ekoizlearen eta kudeatzailearen artean egindako hondakin beraren entregetarako eta onarpen-baldintza berberetarako.

Sustatzaileak artxiboan erregistratu eta gutxienez hiru urtez gorde beharko ditu tratamendu-kontratuak.

Tratamendu-kontratu hori ingurumen-organoari igorriko zaio, hondakin baimendua lehen aldiz hustu baino lehen, bai eta ingurumen-baimen bateratuan aurretik adierazi gabeko hondakin berri bat sortzen denean ere, ingurumena zaintzeko programaren bidez, IZP – BO atalean agertzen den moduan.

Kudeatzaile baimenduaren tratamendu-kontratua izateko, garraioaren aurretiko jakinarazpena egiteko eta identifikazio-dokumentua betetzeko betebeharretik salbu egongo dira kudeaketa-sistema bateratuko kudeaketa-azpiegituretara eramaten diren hondakinak, bai eta toki-entitateei ematen zaizkienak ere, gaika bildutako udal-hondakinekin eta haien parekoak direnekin batera kudeatu ditzaten, baldin eta dagokion toki-entitateek entrega horiek egin direla egiaztatzen badute. Toki-entitateei egindako entregak justifikatzeko dokumentuak hiru urtez gorde beharko dira gutxienez.

Identifikazio-dokumentua:

Hondakin bat lekuz aldatzeko, hondakin hori identifikatzen duen dokumentu bat beharko da une oro. Bertan jasoko da Estatuko lurraldean hondakinen lekualdaketa arautzen duen ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretuaren I. eta III. eranskinetako informazioa.

Artxibo kronologikoan erregistratu eta, gutxienez, hiru urtez gorde beharko dira identifikazio-dokumentuak.

Aldez aurretiko jakinarazpena:

Era berean, aldez aurretiko jakinarazpena egin beharko da, 553/2020 Errege Dekretuaren II. eranskineko edukia jasota, lekualdaketa hauen kasuan:

– Deuseztatzeko hondakinak lekualdatzea (arriskutsuak eta arriskugabeak);

– Hondakin arriskutsuak, nahasita dauden etxeko hondakinak (EHZ 20 03 01 kodearekin identifikatuta daudenak) eta arauz ezartzen direnak lekualdatzea, balorizatzeko.

Nahitaezko aldez aurretiko jakinarazpenen kasuetan, Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 31. artikuluan xedatutako eta ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretuaren 9. artikuluan garatutako kausetako bat gertatzen denean, hala EAEko ingurumen-organoak nola helmugako autonomia-erkidegoko organo eskudunak hondakinak garraiatzearen aurka egin ahalko dute; arrazoitutako erabakia garraio-jakinarazpena aurkeztu eta gehienez hamar eguneko epean jakinarazi beharko diote operadoreari.

Jakinarazpen orokor bat egin ahal izango da, gehienez ere, hiru urterako, instalazio berera joango diren eta antzeko ezaugarri fisikoak eta kimikoak dituzten hondakinetarako.

Aldez aurretiko jakinarazpenak gutxienez hiru urtez gordeko dira indarraldia amaitu ondoren.

Garraioa egiaztatzea:

Hondakin arriskutsuen kasuan, egiaztatu beharko da hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eramateko erabiliko den garraiobideak behar bezala betetzen dituela horrelako gaiak garraiatzeko ezarritako betekizunak, indarrean dagoen legeriaren arabera.

Dagokion ingurumen-baimenean enpresa beraren instalazioen artean hondakinak lekualdatzeko aukera ematen bada, salgai arriskutsuen errepide bidezko nazioarteko garraioari buruzko Europako Akordioa (ADR) bete beharko da, aplikatzekoa den hondakinei dagokienez.

Mugaz gaindiko garraioa (esportazioa):

Hondakinak Estatutik kanpora esportatzen direnetan, Hondakinak lekualdatzeari buruzko 2024ko apirilaren 11ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2024/1157 Erregelamenduan ezarritakoa bete beharko da. Erregelamendu horrek (EB) 1257/2013 eta (EB) 2020/1056 erregelamenduak aldatzen ditu, eta hondakinak lekualdatzeari buruzko (EE) 1013/2006 Erregelamendua indargabetzen du.

Artxibo kronologikoa:

Pertsona fisiko edo juridiko erregistratuek eta urtean hondakin arriskugabeen 10 tona baino gehiago sortzen dituzten hasierako ekoizleek, artxibo elektroniko batean, datu hauek jaso beharko dituzte, ordena kronologikoan: sortutako hondakinen kantitatea, izaera eta jatorria, bai eta berrerabiltzeko prestatzeko, birziklatzeko, beste balorizazio-eragiketa batzuk egiteko eta deuseztatzeko produktu, material edo substantzien eta haien ondoriozko hondakinen kantitatea ere; eta, hala badagokio, eragiketa horien ondorioz sortutako hondakinaren helmuga, bilketaren maiztasuna, garraiobidea eta aurreikusitako tratamendu-metodoa ere inskribatuko dira, bai eta produktu, material eta substantzien helmuga ere. Gainera, ekitaldi bakoitzaren amaieran biltegiratutako hondakinei buruzko informazioa ere jasoko da. Artxibo kronologikoaren inskripzioak, aplikatzekoa denean, 7/2022 Legearen II. eta III. eranskinen arabera baimendutako tratamendu-eragiketa bakoitzeko egingo dira.

Enpresak urtero bidali beharko dio artxibo kronologikoa ingurumen-organo honi, ingurumena zaintzeko urteko programaren txostenean. Era berean, aldi baterako biltegiratuta dauden hondakinen zerrenda bidali beharko dio adierazpenaren xede den ekitaldia amaitzean.

Azpiprodukturuak sortzen edo erabiltzen dituzten entitate edo enpresek erregistro kronologiko bat izango dute, azpiprodukturu gisa ekoitzitako eta kudeatutako kantitateak eta haien helmugak/jatorria biltzen dituena.

Artxibo kronologikoko informazioa, gutxienez, bost urtez gordeko da, eta agintari eskudunen eskueran edukiko da, ikuskapen- eta kontrol-ondorioetarako.

Laburpen-memoria:

Ekonomia zirkularra bultzatzeko eta hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 65. artikuluan ezarritakoaren arabera, sustatzaileak, datuak jaso ondorengo urteko martxoaren 1a baino lehen, sortutako hondakinen artxibo kronologikoan jasotako informazioaren laburpen-memoria bat aurkeztu beharko du. Memoria bidaltzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eskura jarritako kanal, sistema edo aplikazio informatikoak erabiliko dira.

Laburpen-memoriak, gainera, tratatzeke dauden eta lantegietan sortu diren hondakinen zerrenda eta ekitaldi bakoitzaren amaieran aldi baterako biltegiratuta dauden hondakinen kantitatea jasoko ditu.

Minimizazio-plana:

Hondakin arriskutsuen hasierako ekoizleek nahitaez aurkeztu beharko dute minimizazio-plan bat lau urtez behin, sortutako hondakin arriskutsuen kantitatea eta haien arriskua murrizteko hartuko dituzten praktikak jasoko dituena. Ez dute plan hori aurkeztu beharrik izango urtean 10 tona baino gutxiago sortzen dituzten hondakin arriskutsuen hasierako ekoizleek, instalazio- eta mantentze-enpresek, eta EMAS ziurtagiria edo mota horretako hondakinak minimizatzeko neurriak aplikatzen dituen beste sistema baliokideren bat duten hasierako ekoizleek. Informazio hori ingurumen-adierazpen baliozkotuan jasoko da. Aipatutako salbuespen-araubideren batean egonez gero, dagokion egiaztagiria aurkeztu beharko da.

Dagokion urteko minimizazio-plana, edo behin bakarrik salbuetsita egotearen egiaztagiria, ingurumena zaintzeko programan entregatu beharko da, IZP – BO atalean agertzen den bezala.

Ontziak merkaturatzea. Prebentziorako eta ekodiseinurako enpresa-plana:

Enpresak ontziak eta enbalajeak dituzten produktuak merkaturatzen baditu, abenduaren 27ko 1055/2022 Errege Dekretuaren IV. eranskineko 2. apartatuan jasotako informazioa Trantsizio Ekologikorako Ministerioko Ingurumenaren Kalitate eta Ebaluazioko Zuzendaritza Nagusiari eta ontzien urteko adierazpenari buruzko erronka demografikoari bidali izanaren egiaztagiria eman beharko dio urtero, martxoaren 31 baino lehen. Bidalketa hori dagokion urteko ingurumena zaintzeko programarekin batera egingo da. Datu horiekin batera, ingurumena zaintzeko programa bidaliko du, urtean urtekoa.

Halaber, Ontzien eta ontzi-hondakinen abenduaren 27ko 1055/2022 Errege Dekretuaren 43. artikuluan hornitzaileei ezartzen zaizkien betebeharrak bete beharko ditu.

Sustatzailea behartuta dago bosturteko Ekodiseinu eta Prebentzioko Enpresa Plana aplikatzera, urte natural batean, ontziratutako produktuak edo industria- edo merkataritza-ontziak merkaturatzen baditu eta jarraian zehazten diren kantitateak gainditzen dituzten hondakinak sortzen baditu:

– 250 tona, beira soilik bada.

– 50 tona, altzairua soilik bada.

– 30 tona, aluminioa soilik bada.

– 20 tona, plastikoa soilik bada.

– 20 tona, zura soilik bada.

– 15 tona, kartoia edo material konposatuak soilik badira.

– 300 tona, hainbat material badira, eta bakoitzak, bera bakarrik hartuta, ez baditu lehen aipatutako kantitateak gainditzen.

Prebentzio eta Ekodiseinuko Enpresa Plan horretan, kontuan hartu beharko ditu ontzi-hondakinak prebenitzeko tresnetako zehaztapenak. Halaber, aurreko planetako helburuen betetze-mailaren laburpena txertatu beharko du, prebentzio-helburu kuantifikatu berriak adierazita, baita horiek erdiesteko neurriak betetzen dituela kontrolatzeko mekanismoak ere, abenduaren 27ko 1055/2022 Errege Dekretuaren 18. artikuluari jarraikiz. Plana amaitu eta hiru hilabeteko epean, planaren txostena bidaliko da sozietatearen egoitza dagoen autonomia-erkidegora, eta bertan jasotako prebentzio-neurrien betetze-mailaren berri eman beharko du.

• Baldintza espezifikoak.

Baimenaren Hondakinen ekoizpena – BP atalean identifikatzen diren hondakinen arabera, baldintza espezifiko hauek bete beharko dira:

Sortutako hondakina	Baldintza
180103	Berariazko hondakin sanitarioak (II. taldea) manipulatu, ontziratu, etiketatu eta biltegiratzeko baldintzak Hondakin Sanitarioak Kudeatzeari buruzko martxoaren 3ko 21/2015 Dekretuan eta hura garatzeko ondorengo araudietan ezarritakoak izango dira.
Epigrafeen kodeak 13 01 13 02 13 03 13 05 13 08	Sortutako olio erabilia kudeatzeko, kontuan hartutako da ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretua, industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duena.
160213 160214	Ekipamendu elektriko eta elektronikoen hondakinak –besteak beste, lanpara fluoreszenteenak– kudeatuko dira Gailu Elektriko eta Elektronikoen Hondakinei buruzko otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera.
160213 160214	Ekoizleak ozono-geruza agortzen duten substantziei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EE) 1005/2009 Erregelamenduan zehaztutako gai erabiliak baldin baditu, berreskuratu egingo dira alderdiek onetsitako bitarteko teknikoen bidez deuseztatzeko, edo ingurumenaren ikuspegitik onargarria den beste edozein deuseztatze-bide tekniko erabiliz, edota birziklatzeko edo birsortzeko xedez, tresnak berrikusi eta mantentzeko eragiketetan nahiz desmuntatu edo deuseztatu aurretik.
160602 160603 160604 160605 160606 200133	Pilen eta metagailuen hondakinek Pilei eta metagailuei eta haien hondakinen ingurumen-kudeaketari buruzko otsailaren 1eko 106/2008 Errege Dekretuan xedatutakoa bete beharko dute.
130301 160109 160209 160210 160213 170902	Ekoizleak poliklorobifeniloak (PCB) dituzten edo izan ditzaketen aparatuak dauzkan bitartean, haiek behar bezala kudeatzeko bete egin beharko dira lege hauetan adierazitako betekizunak: abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretuan, polikrorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten aparatuak ezabatzeko eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituen horretan, eta hori aldatu zuen otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretuan.
150101 150102 150103 150104 150105 150106 150107 150110 150111	Sustatzailea industria-ontzi baten azken jabea bada, abenduaren 27ko 1055/2022 Errege Dekretuaren 44. artikuluan xedatutako betekizunak bete beharko ditu.
170601 170605	Amiantoa duten hondakinak daudela antzemanez gero, 108/1991 Errege Dekretuaren (amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzeari buruzkoa) 3. artikuluan ezarrita dauden eskakizunak bete beharko dira. Horrez gain, amiantoa duten hondakinak kudeatzeko egingo diren manipulazioak 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako eskakizunen arabera burutuko dira; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egiterakoan segurtasun-eta osasun-arloan bete behar diren gutxieneko baldintzak.

ATALA: LURZORUA – BALDINTZAK OROKORRAK

LURZORUA ETA LURPEKO URAK BABESTEKO BALDINTZAK OROKORRAK

• Babes-neurriak:

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan, ekainaren 25eko 4/2015 Legean eta abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuan (Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015

Legea garatzekoa) ezarritako betebeharrak betez aurkeztutako lurzoruaren egoerari buruzko txostenaren eta horretan jasotako gomendioen arabera, sustatzaileak lurzorua babesteko behar diren neurriak hartu beharko ditu, bai eta Lurzorua – BP izeneko atalean jasotakoak ere.

• Lurzoruaren egoeraren txostena.

4/2015 Legearen 16.2 artikulua betetzeko, lurzoruaren egoerari buruzko txostenak aurkeztu beharko dira, gutxienez 5 urtean behin.

• Oinarrizko txostena eta lurzoruen eta lurpeko uren kontrol- eta jarraipen-dokumentuak.

Era berean, aurreko paragrafoan aipatutako araudian, abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuan eta urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuan lurzorua babesteari buruz ezarritako betebeharrak betetzeko, sustatzaileak hauek aurkeztu beharko ditu:

– Oinarrizko txostena, abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuaren 20. artikuluan aipatutako epeak eta maiztasunak beteta.

– Lurzoruen eta lurpeko uren kontrol- eta jarraipen-dokumentuak, urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 10.2 artikuluan ezarritako epeen arabera.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2020ko urtarrilaren 23ko Aginduari dagokionez jakinarazitako baldintzen analisian zehazten diren kontrolak ezertan eragotzi gabe (agindu horrek onartzen du Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuan xedatutakoa interpretatzeari eta aplikatzeari buruzko Jarraibide Teknikoa), eta lurzoruaren eta lurpeko uren egoera zehazteko oinarrizko txosten bat eskatzeari lotuta, sustatzaileak lurzoruaren eta lurpeko ur silikatoen egoera zehazteko oinarrizko txosten bat egin beharko du. Horretarako, gutxienez bi zundaketa egin beharko ditu uren karakterizaziorako, ateratako lurzoru-zutabearen karakterizaziorako eta piezometro bana gaitzeko, eta haiek erabiliko dira lurpeko uren kalitatearen jarraipena egiteko. Zundaketak kokatzeko, kontuan hartuko dira egon litezkeen arrisku-iturriak eta lurpeko uren fluxua; hala, instalaziotik ur gora eta ur behera dagoen fluxua alderatu ahal izango da.

• Lurzoruen dokumentu bakarra.

Nolanahi ere, sustatzaileak lurzoruen dokumentu bakar bat bidaliko du, ikerketa-lanak egiten eta lurzoruaren kalitatea lehengoratzen diharduen entitate egiaztatu batek egina, eta aipatutako txostenak bilduko ditu hor (lurzoruaren egoerari buruzko aldizkako txostena, oinarrizko txostena eta lurzoruen eta lurpeko uren kontrol- eta jarraipen-dokumentuak). Emandako dokumentuak aldatu edo dokumentu berriak eman behar diren bakoitzean, hauek helaraziko dira:

– Lurzoruaren egoeraren aldizkako txostenak.

– Lurzoruen eta lurpeko uren kontrol- eta jarraipen-dokumentuak, urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 10.2 artikuluan ezarritako epeen arabera.

• Lurzoruei buruzko informazioa eguneratzea.

Oinarrizko txostena edo egoera-txostena eguneratu behar den kasuetan, bere garaian egin ez zelako, edo beste lurzoru bat okupatu behar delako, sustatzaileak dokumentu bakar bat bidaliko du. Dokumentu hori entitate egiaztatu batek egingo du, lurzoruaren kalitatea ikertzeko eta berreskuratzeko lanak egin ditzakeenak. Dokumentu horretan, bi horien informazio eguneratua jasoko da, bai eta lurzoruen eta lurpeko uren kontrol- eta jarraipen-dokumentuak ere.

• Lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpenaren prozedura hastea.

Ekainaren 25eko 4/2015 Legean adierazitako egoeraren bat gertatzen denean, sustatzaileak lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpenaren prozedura hasteko eskatu beharko dio ingurumen-organoari, lurzorua kutsatu ez dadin edo halako egoerak zuzendu daitezen.

• Entitate egiaztatua.

Apartatu hau betetzeko eman beharreko informazioa entitate egiaztatu batek eman beharko du, lehen aipatutako urriaren 10eko 199/2006 Dekretuan ezarritakoaren arabera, bai eta organo honek horretarako onar ditzakeen jarraibideetan ezarritakoaren arabera ere.

• Lur-mugimenduak.

Instalazioen aldaketek eragindako lur-mugimenduei dagokienez, sustatzaileak baldintza hauek bete beharko ditu:

1.– Aurreikusten bada aldaketaren bat egin behar dela instalazioa baimenduta dagoen lurzatiaren barruan, eta aldaketa horren ondorioz lurrak mugitu behar badira:

a) Ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 25.1.c) artikuluarekin bat etorriz, jardueraren sustatzaileak hondeatu beharreko materialak (lurrak, obra-hondakinak, etab.) karakterizatu beharko ditu, ekintza kutsatzaileen ondorioz erasan diren egiaztatzeko eta, karakterizazio horren emaitzen arabera, haientzako kudeaketa-modu egokiena zehazteko.

b) Jarduketa horretan aurreikusten bada induskatu beharreko materialen bolumena 500 m^3tik gorakoa dela (zolatak barne), edo jarduketa egin bitartean gainditze hori antzemango balitz, nahitaezkoa izango da lurzoruaren kalitatea ikertzeko eta oneratzeko entitate egiaztatu batek egindako indusketa selektiborako plan bat aurkeztea. Indusketa-planak abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuaren IV. eranskinean adierazitako edukia jaso beharko du, eta ingurumen-organoak onartu beharko du, gauzatu aurretik.

c) Hondeatu beharreko bolumena 500 m^3-tik beherakoa bada, aldaketaren jakinarazpenak informazio hau jaso beharko du:

– Jarduketa sustatzen duen pertsona fisiko edo juridikoaren eta jarduketa burutuko duen kontratistaren identifikazioa.

– Jarduketak ukituko duen lekuaren kokapen-datuak, Lurzoruaren Kalitatearen Administrazio Erregistroaren erreferentzia barne hartuta.

– Jarduketaren xede den eremuaren mugaketa eta azalera. Jakinarazpenean, lurzatia eta jarduketa-eremua zehatz-mehatz non dauden jakitea ahalbidetzen duten planoak erantsiko dira.

– Jardueraren deskribapen xehatua.

– Induskatuko diren materialen bolumena, zolatak barne.

– Ingurumen-jarraipenerako lanen eta azken txostena egitearen arduradunaren identifikazioa; artikulu honetan aipatutako kasuetan, entitate egiaztatua izan beharko du.

– Jarduketa hasteko aurreikusitako datak.

d) Aurreko kasuetako edozeinetan, obra egin ondoren, azken txostena bidali beharko du. Bertan, lurren karakterizazioaren emaitzak adierazi beharko dira; horrez gain, induskatutako materialen berrerabilera edo kudeaketa egokia egiaztatzeko txosten bat ere bidali beharko da. Indusketaren bolumena 100 m^3-tik gorakoa bada, entitate egiaztatu batek egingo ditu ingurumen-jarraipenerako lanak eta txostena.

e) Arau orokor gisa, Kutsatutako lurzoruetan indusketa selektiboak egiteko gidan jasotzen diren irizpideak beteko dira. Esteka honetan eskura daiteke gida:

https://www.ihobe.eus/sites/default/files/2025-08/GUIA%20DE%20EXCAVACIONESEUSK.pdf

f) Soberakinak hondakindegian biltegiratuz hustu nahi izanez gero, baimendutako balorizatzailean onartu ezin badira, otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan (Hondakinak hondakindegietan biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena) ezarritakoari jarraikiz kudeatu beharko dira hondakindegian. Karakterizazioa 49/2009 Dekretuan ezarritakoaren arabera egingo da. Oro har, laginketa egiteko, abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuaren IV. eranskinean eta gidaren 10.2.6 apartatuan («Induskatu behar diren lurzoruetan in situ egindako laginketa») biltzen diren induskatu beharreko materialen karakterizazio-kanpaina diseinatzerakoan kontuan hartu behar diren oinarrizko irizpideei jarraituko zaie.

g) Soberako materialak instalazio berean berrerabili ahal izateko, balio hau izan beharko dute material horiek: Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legean ezarritako B-EBA (industria-erabilera) balioaren azpikoa. Horrez gain, lur horien hidrokarburo-edukia ezin izango da arriskutsua izan. Horretarako, entitate egiaztatu batek egin beharko ditu laginketa eta analisia, honen arabera: 199/2006 Dekretua, urriaren 10ekoa, Lurzoruaren kalitatea ikertu eta berreskuratzeko entitateak egiaztatzeko sistema ezartzen duena, eta entitate horiek lurzoruaren kalitatearen gainean egindako ikerketen edukia eta norainokoa zehazten dituena.

h) Ekainaren 25eko 4/2015 Legean xedatutako A-EBA ebaluazioko balio-adierazleak eta TPHetarako 50 mg/kg baino balio txikiagoak lortzen dituzten lurrak lur garbitzat hartuko dira, eta, beraz, onartu egingo dira baimendutako edozein betelanetarako.

i) Substratu harritsu ona murrizketarik gabe kudeatu ahalko da. Lurzoru naturalaren parekoa den substratu harritsu meteorizatuaren kasuan, aurreko puntuetan ezarritako irizpidea beteko da.

2.– Instalazioa baimenduta dagoen lurzatitik kanpo aldaketaren bat egitea aurreikusi bada (lurzoru berria okupatuz), eta okupatu nahi den lurzoru berriak lehenago izan badu ekainaren 25eko 4/2015 Legearen I. eranskinean aipatutako jardueraren bat, sustatzaileak lurzoruaren arloko adierazpen bat lortu beharko du egin nahi diren aldaketak egiten hasi aurretik.

ATALA: ZARATA – BO

ZARATAREN INGURUKO BALDINTZA OROKORRAK

Zarata – BP atalean ezarritako indize akustikoak ez gainditzeko beharrezkoak diren neurriak ezarriko dira.

Jardueraren zuzeneko edo zeharkako eraginez zaratarentzat ezarritako kalitate akustikoaren helburuak gainditzen direnean, hain zuzen ere Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legean garatzen den zonakatze akustikoari, kalitate-helburuei eta emisio akustikoei buruzko urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren 14. eta 16. artikuluetan adierazten direnak, jarduerak beharrezkoak diren neurriak hartu beharko ditu helburu horiek gainditu ez daitezen.

Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzerakoan egiten den zaratak ez du handituko akustikoki oso sentikorrak diren aldeetako zarata-maila.

• Zaratarren kontrola.

Jarduera garatzen den lurzatiko kanpoko baldintza akustikoak ZARATA – BP atalean ezarritako maiztasunarekin kontrolatuko dira, batez ere zarata etxe barruetara sartzeko arriskurik handiena dagoen aldeetan.

Neurketa bidezko ebaluazio guztiak II. mailako ingurumen-lankidetzako entitate batek egin beharko ditu, bat etorriz urriaren 16ko 212/2012 Dekretuan ezarritakoarekin. Entitate horrek UNE-EN ISO/IEC 17025 arauaren araberako egiaztagiria eduki beharko du akustikaren arloan espazio- eta denbora-laginketa egiteko.

Sustatzaileak beharrezkoak diren neurriak hartu beharko ditu, instalazioak kanpoko ingurumenera zabaldu ez ditzan Zarata – BP atalean muga-balio gisa ezarritako zarata-mailak baino handiagoak; muga-balio horiek Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren II. eranskineko prozedurei jarraikiz ebaluatzen dira.

Lokal mugakideak egonez gero, lokal horien erabilera kontuan hartuta, instalazioak ezingo du urriaren 16ko 213/2012 Errege Dekretuaren I. eranskineko G eta H tauletan ezarritako muga-balioak baino zarata-maila handiagoa transmititu haietara.

Ezarritako zarata-immisioaren muga-balioak errespetatzen direla ulertuko da baldin eta, urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren II. eranskinean ezarritako prozeduren arabera, baldintza hauek betetzen badituzte ebaluatutako adierazle akustikoen balioek, urtebeteko epean:

– Urteko batez besteko balioek ez dituzte gainditzen aipatutako I. eranskineko F taulak ezarritako balioak.

– Eguneroko balioek ez dituzte 3 dB-etan gainditzen aipatutako I. eranskineko F taulak ezarritako balioak.

– Lkeq, Ti indizearen batez besteko balioek ez dituzte 5 dB-etan gainditzen aipatutako I. eranskineko F taulan adierazitako balioak.

Jardueraren kontrolean sortutako dokumentazioa ingurumen-organoari igorriko zaio, IZP – BO atalean adierazitakoaren arabera.

ATALA: IZP – BALDINTZA OROKORRAK

INGURUMENA ZAINTZEKO PROGRAMAREN BALDINTZA OROKORRAK

• Ingurumena zaintzeko programa.

Ingurumena zaintzeko programa sustatzaileak aurkeztutako dokumentuetan eta apartatu hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da.

• Emaitzak kontrolatzea eta bidaltzea.

Oro har, web-orri honetan eskura dagoen Ingurumena zaintzeko programa bidaltzea gidaliburuko jarraibideak bete beharko dira:

https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/guias_ingurunet/eu_def/adjuntos/pva.pdf

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten analisien eta txostenen emaitzak behar bezala erregistratuta geratuko dira, eta ingurumen-organo honetara bidaliko dira, horretarako ezarritako entrega-prozedura telematikoari jarraituz («Ingurumena zaintzeko programa entregatzea»). Web-orriko «Izapidetzea» apartatutik sartzen da prozedura horretara:

https://www.euskadi.eus/baimena/ibb-ippc/web01-tramite/eu/

Edonola ere, prozedura horretako «Dokumentuak» apartatuko jarraibideak, ereduak eta kodifikazioak baliatu beharko dira.

Hala, aipatutako programak zehaztutako aldian egiten diren kontrol guztiak, ibilgura edo itsasora isuritako urei dagozkienak izan ezik, ingurumena zaintzeko programarekin batera bakarrik aurkeztuko dira, erreferentziako urtea amaitu ondoren.

Ezarritako baldintzen ez-betetzeak erregistratzen diren kasuetan soilik, gertaera horren berri izan eta berehala jakinarazi beharko zaio ingurumen-organo honi, ezohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentzio-neurriei eta ezohiko egoeretako funtzionamendu-baldintzei buruzko baldintza partikularrei buruzko apartatuetan ezarritakoaren arabera.

Horrez gain, urtean behin baino gehiagotan egiten diren kontrolak kasuan kasuko kontrola egiten den urteari dagokion programaren barruan baino ez dira bidaliko.

Emaitza horiek urtero bidaliko dira, martxoaren 31 baino lehen, eta txosten bat aurkeztu beharko da zaintza-programaren emaitzekin batera. Txosten horretan jasoko dira babes- eta zuzenketa-neurrien eta prozeduren kontrolerako eta ingurumenaren kalitaterako sistemen funtzionamendua eta emaitzen analisia, epe horretan izandako gorabehera nagusiak bereziki aipatuta, haien balizko kausa eta konponbideak azalduz; halaber, laginak nola hartu diren zehaztuko da, aldez aurretik hala egin ez bada.

• Ingurumena zaintzeko programaren dokumentu bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren dokumentu bategina egin beharko du, eta bertan bildu beharko ditu aurkeztutako dokumentazioan proposatutako betebeharrak eta ingurumen-baimen bateratu honetan jasotakoak. Programa horrek hauek zehaztu beharko ditu: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzeko erreferentzia-mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak eta analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko puntuen kokapen xehatua. Halaber, dagokion aurrekontua ere barne hartu beharko du.

Era berean, ingurumena zaintzeko programak jardueraren adierazleak zehaztu eta adierazle horiek aztertzeko sistematika barruan izan beharko du, haien arabera enpresan bertan ingurumen-hobekuntza ziurtatzeko ezarritako neurrien eta mekanismoen efikazia egiaztatzeko (ingurumen-adierazleak).

ATALA: PRTR – BALDINTZA OROKORRAK

KUTSATZAILEEN ERREGISTROARI BURUZKO BALDINTZA OROKORRAK

• Ingurumen-adierazpena.

Urtean behin, martxoaren 31 baino lehen, aurreko urtean atmosferarako emisioei eta uretarako emisioei eta sortutako hondakin mota guztiei buruzko datuen ingurumen-adierazpena igorriko dio sustatzaileak ingurumen-organo honi, E-PRTR-Euskadi Kutsatzaileen Emisio eta Transferentzia Inbentarioa egiteko eta eguneratuta edukitzeko, 508/2007 Errege Dekretuari jarraikiz.

Informazio hori bidaltzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak ezarritako entregak egiteko prozedura telematikoa bidaliko da.

Datu horietako batzuek Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumenean eragina duten jardueren erregistroa osatuko dute, eta erregistro hori transakzio-basea izango da, datuak Europako Ingurumen Agentziaren erregistroetara bidaltzeko, E-PRTR-Europa erregistrora, alegia.

Ingurumen-adierazpena publikoa izango da, bat etorriz uztailaren 18ko 27/2006 Legearen xedapenekin. Lege horren bidez, informazioa eskuragarri izateko, herritarren partaidetzarako eta ingurumen-gaietan justizia eskura izateko eskubideak arautzen dira (2003/4/EE eta 2003/2005/EE zuzentarauak jasotzen ditu). Horrez gain, une oro bermatu beharko da Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa betetzen dela.

ATALA: EZOHIKO EGOERAK – BALDINTZA OROKORRAK

PREBENTZIO-NEURRIEI ETA EZOHIKO EGOERETAN FUNTZIONATZEKO BALDINTZEI BURUZKO BALDINTZA OROKORRAK

• Lantegia geldiarazteko eta martxan jartzeko eragiketak eta mantentze-eragiketa programatuak.

Programatutako urteko mantentze-eragiketei dagokienez, sortuko diren emisioen eta hondakinen balioespena egin beharko du sustatzaileak, eta, dagokionean, haiek kudeatzeko eta tratatzekoa ere bai.

Lantegia geldiaraztean nahiz abiaraztean, mantentze-eragiketetan eta ohiz kanpoko egoeretan sortutako hondakinak kudeatu beharko dira, Hondakinen ekoizpena – BP eta Hondakinen ekoizpena – BO ataletan ezarritakoarekin bat etorriz.

• Jarduteari uztea.

Ingurumen-erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legearen eta Kutsaduraren eta narriaduraren aurkako lurrazpiko uren babesa arautzen duen urriaren 2ko 1514/2009 Errege Dekretuaren kaltetan izan gabe, baita lurzoruaren babesaren arloko legeen kaltetan izan gabe ere, sustatzaileak apartatu hauetan ezarritako baldintzak bete beharko ditu.

– Jarduerei behin betiko utzi ondoren, titularrak lurzorua nola dagoen eta instalazioak erabilitako, ekoitzitako edo zabaldutako gai arriskutsu garrantzitsuek lurpeko uretan zer-nolako kutsadura eragin duten ebaluatuko du, eta organo honi emango dio ebaluazio horren emaitzen berri. Ebaluazioak erabakitzen badu instalazioak lurzoruaren edo lurpeko uren kutsatze aipagarria eragin duela lurzoruaren kalitatea adierazteko izapidean egindako lurzoruaren kalitatearen ikerketa-txostenetan ezarritako egoerarekin alderatuta, titularrak neurri egokiak hartuko ditu kutsadura horri aurre egin eta instalazioa egoera hartan berriz jartzeko, aipatu urriaren 23ko 26/2007 Legearen II. eranskineko arauei jarraikiz.

– Nolanahi ere, jardueren behin betiko etena gertatu ondoren, sustatzaileak gai arriskutsu guztiak kendu eta instalazioetan dauden hondakin guztiak kudeatu beharko ditu, behin betiko ixtean lekua garbi geratzeko, eta instalazioan geratutako hondakin guztiak kudeatzaile baimendu bati emateko. Orobat bermatuko da lekuak ez duela arrisku aipagarririk sortzen pertsonen osasunarentzat eta ingurumenarentzat, jarduera dela-eta lurzorua eta lurpeko urak kutsatzearen ondorioz.

– Jarduerari lege hauek aplikatu behar zaizkio: 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa, eta 9/2005 Errege Dekretua, urtarrilaren 14koa, Kutsadura sor dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide eta estandarrak ezartzekoa. Horrenbestez, sustatzaileak jarduera-uzte horren berri eman beharko dio ingurumen-organoari, bi hilabeteko epea agortu baino lehen; jakinarazpen horrekin batera, jarduketa-proposamen bat ere aurkeztu beharko da, organo horrek ezar dezan noraino iristen diren bere betebeharrak eta lurzoruaren kalitatea deklaratzeko prozedura hasteko epea noiz hasiko den beranduenez, ekainaren 25eko 4/2015 Legeak 31.3 artikuluan xedatutakoari jarraikiz. Arauari dagokion jarduera-kodea Ezohiko egoerak – BP atalean ezartzen da.

Jarduerari utzi baino lehen, sustatzaileak instalazioetan dauden hondakin guztiak kudeatu beharko ditu, Hondakinen ekoizpena – BP eta Hondakinen ekoizpena – BO ataletan ezarritakoari jarraikiz.

• Jarduerari aldi baterako uztea.

Jarduerari aldi baterako uzten zaiola jakinaraziz gero, sustatzaileak, aldi baterako uztearen jakinarazpenarekin batera, dokumentu bat bidali beharko du lantegia jardunik gabe egonda ere aplikagarriak zaizkion ingurumen-baimen bateratuko kontrolak eta betekizunak nola beteko dituen adierazteko.

Era berean, jarduera berriz hasi baino lehen, instalazioek egokiro funtzionatzen dutela ziurtatu beharko da, ingurumenean eragina duen isurketa edo emisio oro saihesteko.

• Arauz kanpoko funtzionamendurako prebentzio-neurriak eta jarduketak.

Aurkeztutako dokumentuetan egindako proposamenean zehaztuta dauden prebentzio-neurriez eta ezohiko egoeretan aplikatu beharreko funtzionamendu-baldintzez gain, apartatu hauetan aipatzen diren baldintzak bete beharko dira:

Instalazioen mantentze-lan prebentiboak:

a) Mantentze-lan prebentiboen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera ona bermatzeko; batez ere, ustekabeko jario edo ihesak daudenean kutsadura saihesteko eskuragarri dauden baliabideei eta ezarritako segurtasun-neurriei dagokienez. Ihesak daudenean lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazgaiztasuna), biltegiratzeko neurri bereziak (substantzia arriskutsuak), gerta litezkeen ihesei antzemateko neurriak edo gehiegizko betetzeaz ohartarazteko alarma-sistemak, lantokiko kolektore-sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitu beharra, maiztasuna, garbiketa mota) eta lurzoru gaineko jarioak biltzeko sistemak.

Aurreko paragrafoan adierazitako eskuliburuak ikuskapen eta kontrolerako programa jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, andelen barnealdearen ikuskapen bisualak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, lurzorua kutsatzeko arriskua dakarren edozein egoera prebenitzeko.

Era berean, kutsadura atmosferikoa eta uretara egindako emisioak prebenitzeko eta zuzentzeko sistemen (arazketa, minimizazioa eta abar) eta ikuskatu eta kontrolatzeko ekipamenduen egoera ona bermatzeko neurriak jaso beharko dira.

Arazketa-instalazioak behar bezala garbitu eta mantenduko dira, errendimendu egokia ziurtatzeko. Urak arazteko prozesuan pilatutako hondakin solidoak eta lohiak behar den maiztasunez aterako dira, instalazioa behar bezala ibil dadin. Hondakin horiek ez dira ibai-ibilgura hustuko aldizkako garbiketa egiten denean; bildu egin beharko dira, kudeatzeko edo hondakindegi baimendu batera eramateko. Hala dagokionean, hondoan hustubiderik ez duten depositu iragazgaitzetan bilduko dira. Inoiz ez dira pilatuko euri-uren jariatzearen ondorioz ibilgu publikoko urak kutsatzeko arriskua egon daitekeen guneetan.

Jardueran edo arazteko instalazioetan sortzen diren gainerako hondakinei dagokienez (erabateko hustuketa eta biltegietako garbiketa eta abar), indarreko legeriak dioen moduan tratatuko dira, haien izaeraren arabera.

Pabiloien barruan zolak garbitzean sortutako urak tratamendu-lerrora bidaliko dira, edo, bestela, kudeatzaile baimendu batek kudeatuko ditu.

Hondakin-urak ezingo dira by-pass bidez isuri arazketa-instalazioetan.

Programatutako mantentze-lanetan derrigorrez by-pas bidez isurketak egin behar badira, titularrak ingurumen-organo honi jakinaraziko dio aurretiaz, segurtasun-neurrien eta isurketak ingurune hartzailearen kalitatearen gainean duen eragina ahal den neurrian gutxitzeko neurrien funtzionamendua zehaztuz. By-pass horretan, aurreikusi gabeko isurketaren bat gertatzen bada, titularrak segurtasun-neurrien funtzionamendua egiaztatu beharko du, dagokion txostena ingurumen-organo honi bidalita (apartatu honetako «Gorabeheraren bat gertatuz gero, agintariei jakinaraztea» puntuan adierazitakoari jarraituz).

b) Era berean, erregistro bat eduki behar da, eta, bertan, aldizka egindako mantentze-lanak eta antzemandako gorabeherak jasoko dira.

c) Titularrak behar diren bitartekoak izango ditu, arazketa-instalazioak modu egokian ustiatzeko eta istripuz gertatutako isurketak prebenitzeko hartu diren segurtasun-neurriak mantentzeko.

d) Besteak beste, erabilitako olioak, efluenteen arazketako hondakinak, eta, orokorrean, lantegian ekoitzitako hondakinak maneiatzean, baliteke lurzorua eta ura kutsatzea. Beraz, isurketak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua duten lurzatien gainazal guztiak iragazgaiztuko dira.

e) Hautsezko produktuak biltegiratzeko, silo itxiak edo hautsa xurgatzeko sistemak dituzten pabiloi estali eta itxiak eduki beharko dira.

f) Prozesurako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak biltegiratu egingo dira, haiek ingurunean ez sakabanatzeko moduan.

g) Segurtasun-tarteei eta babes-neurriei dagokienez, biltegiratzeko instalazio horiek produktu kimikoak biltegiratzeari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte.

h) Larrialdi-egoeran berehala eta efikaziaz jarduteko beharrezkoak diren material guztien behar besteko kantitatea eduki beharko da: berriro ontziratzeko erreserbako edukiontziak, beharrezkoa izanez gero; gertatzen diren jarioei aurre egiteko produktu xurgatzaile selektiboak; segurtasuneko edukiontziak, kaltetutako ingurunea isolatzeko hesiak eta seinaleztapen-elementuak, eta norbera babesteko ekipamendu egokiak.

i) Kubeten hustuketa kontrolatzeko balio duen protokolo edo prozedura dokumentatu bat edukiko da. Horri jarraituz, tratamendu-instalazioaren efikaziari eragin diezaioketen produktu-jarioak lantegira joatea saihestu beharko da.

j) Inoiz ez dira pilatuko euri-uren jariatzearen ondorioz ibilgu publikoko urak kutsatzeko arriskua egon daitekeen guneetan.

k) Depositu edo putzuen hondoetan pilatutako solidoak ez dira ibai-ibilgura hustuko garbiketa egiten den bitartean; behar bezala kudeatuko dira, edo hondakindegi baimendura eramango dira.

l) Industria-establezimenduetan suteen aurkako segurtasunaren arloan eskumena duten organismoek eskatutako suteak itzaltzeko ekipamenduak eta agenteak instalatuko dira. Hondakin erregaiak (plastikoak, pneumatiko erabiliak, etab.) biltegiratzeko berariazko eremuan sute-arriskuak prebenitzeko neurriak zorroztuko dira, eta, horretarako, gehiegizko biltegiratzeak saihestuko dira.

Nola jardun gorabeheraren bat gertatuz gero:

Jarduteko protokolo bat eduki behar da, ingurunean eragin negatibo garrantzitsuak eragin ditzaketen gorabeherak edo anomaliak gertatuz gero erabiltzeko. Protokoloak gutxienez gai hauek zehaztu behar ditu argi eta garbi, gerta daitekeen gorabehera edo anomalia bakoitzerako:

- Egin beharreko jarduketak, hurrengo apartatuan zehazten den jakinarazpena agintariei helaraztea barne hartuta.
- Jarduketen segida.
- Jarduketa bakoitzaren arduraduna(k).

Istripuz isurketarik gertatuko balitz, berehala geldiaraziko litzateke.

Hondakinak desagertu, galdu edo ihes eginez gero, berehala jakinarazi beharko zaie ingurumen-organo honi eta jarduera kokatzen den udalerriko udalari.

Gorabeheraren bat izanez gero, agintariei jakinaraziko zaie:

Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabehera edo anomaliaren bat gertatuz gero, sustatzaileak berehala jakinarazi beharko dio gorabehera edo anomalia hori ingurumen-organoari, ippc@euskadi.eus eta inspeccionambiental@euskadi.eus helbide elektronikoak erabiliz. Edonola ere, zuzenketa- eta euste-neurri egokiak hartu ondoren egingo da jakinarazpena. Jakinarazpenean, gutxienez, alderdi hauek adierazi beharko dira:

• Gorabehera-mota.

• Jatorriak eta kausak (unean zehaztu daitezkeenak).

• Berehala aplikatutako zuzenketa- edo euste-neurriak.

• Sortutako ondorioak.

• Epe laburrera aurreikusitako jardunak, halakorik balego.

Gertakari edo anomalia larriren bat edo ustekabeko isurketa edo emisioren bat izanez gero, SOS DEIAK eta instalazioak dauden udala, Gipuzkoako Urak, Uraren Euskal Agentzia (alertak-isurketak@uragentzia.eus helbide elektronikoa) eta ingurumen-organo hau jakinaren gainean jarri beharko dira berehala. Ondoren, gehienez ere 48 orduko epean, istripuari buruzko txosten xehatua bidali beharko zaio ingurumen-organoari (ippc@euskadi.eus helbide elektronikora eta inspeccionambiental@euskadi.eus helbidera). Txosten horretan, gutxienez, datu hauek agertuko dira:

• Gorabehera-mota.

• Gorabehera non, zergatik eta zer ordutan gertatu den.

• Gorabeheraren iraupena.

• Istripuz isurketarik gertatuz gero, emaria eta isuritako gaiak eta ingurune hartzailean antzeman daitekeen eragina zehaztu beharko dira, haren analisia barne hartuta.

• Mugak gaindituz gero, emisioei buruzko datuak.

• Eragindako kalteen balioespena.

• Hartutako zuzenketa-neurriak.

• Ezohiko gertaera berriro ez gertatzeko prebentzio-neurriak.

• Prebentzio-neurriak eraginkortasunez aplikatzeko aurreikusitako epeak.

Baimenaren baldintzak urratzen dituen isurketa gertatzen bada eta, gainera, pertsonen osasunerako arriskutsua bada edo sistema naturalen orekari modu larrian kalte egin badiezaioke, titularrak berehala etengo du isurketa hori, eta, horrez gain, gertaeraren berri eman beharko die Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Uraren Euskal Agentziari eta babes zibilaren eta ingurumenaren arloan ardurak dituzten organismoei, baita SOS Deiak (112) larrialdi-zerbitzuei ere, behar diren neurriak har ditzaten.

Aurreko apartatuetan xedatutakoa betetzeak ez du salbuetsiko isurketa eragin duen jardueraren titularra indarrean dagoen araudiaren arabera eska daitezkeen erantzukizunetatik.

Aurretik ezarritakoa ezertan eragotzi gabe, gerta daitezkeen gorabeherak edo anomaliak prebenitzeko neurri gisa, jardueraren titularrak ingurumen-organo honi jakinarazi beharko dio instalazioan programatutako edozein geldialdi, prozesu jarraitu bati buruzkoa bada, aurreikusitako mantentze prebentiboko eragiketak barne, ahalik eta lasterren.

Baimen horrek ez du salbuetsiko titularra bere erantzukizun zibiletik, isurketak laboreetan, animalietan, arrain-faunan, pertsonetan edo ondasunetan eragin ditzakeen kalteengatik, eta, beraz, kalte-ordaina eman beharko dio. Era berean, ez du salbuetsiko delitu ekologikoak arautzen dituen legeriaren ziozko erantzukizun penaletik.

Larrialdi-egoeretan, babes zibilari buruzko araudian ezarritakoa bete beharko da, eta araudi horretan ezarritako baldintza guztiak bete beharko dira.

Ingurumen-baimen bateratua bete ezean, sustatzaileak behar diren neurriak hartu beharko ditu betetzea ahalik eta lasterren gertatuko dela berriz ziurtatzeko.

• Lurzoruan izan dezakeen eragina detektatzea.

Horrez gainera, ekainaren 25eko 4/2015 Legeak 22.2 artikuluan dioenaren arabera, lurraren kutsadura-aztarnak aurkitzen badira, horren berri eman beharko zaie dagokion udalari eta ingurumen-organo honi, hark ezar ditzan hartu beharreko neurriak, aipatutako 4/2015 Legearen 23.1.e) artikuluari jarraikiz betiere.

Datu hauek aurkeztu beharko dira, lurzoruak paira lezakeen eragin ororen aurrean:

– Aintzat hartutako aldian izan diren gorabeherak, substantzia arriskutsuak direla-eta lurzoruaren eta lurpeko uren kutsadura sortu ahal izan dutenak.

– Instalazioan hartutako neurrien egoera –zolak iragazgaiztea, drainatzeak, kubetak eta kutxatilak– bai eta larrialdi-egoeran jarduteko bitarteko egokiak eta nahikoak erabilgarri daudela egiaztatzen duen adierazpena ere, teknikari eskudunak sinatua. Ekipamenduak eta gainazalak egoera onean daudela egiaztatzen duen edo, hala badagokio, haietan hautemandako gabetasunak azaltzen dituen berariazko adierazpena izan beharko du.

– Lurzorua edo lurpeko urak kutsatuta egon daitezkeelako adierazpena, halakorik badago, edo, bestela, horrelako aztarnarik ez dagoela egiaztatzen duen adierazpena.

Apartatu hau betetzeko eman beharreko informazioa entitate egiaztatu batek eman beharko du, lehen aipatutako urriaren 10eko 199/2006 Dekretuan ezarritakoaren arabera, bai eta organo honek horretarako onar ditzakeen jarraibideetan ezarritakoaren arabera ere.

ATALA: INGURUMEN-ERANTZUKIZUNA – BALDINTZA OROKORRAK

INGURUMEN-ERANTZUKIZUNAREN INGURUKO BALDINTZA OROKORRAK

• Ingurumen-erantzukizuna.

Baimeneko baldintza partikularretan instalazioa ingurumen-erantzukizuneko araudiaren esparruan kokatzen bada (arauaren III. eranskina), sustatzaileak bere jarduera profesionalaren ingurumen-arriskuen analisia egin beharko du, abenduaren 22ko 2090/2008 Errege Dekretuaren 34. artikuluan ezarritakoaren arabera (zeinaren bidez onartzen baita Ingurumen Erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legea zati batean garatzen duen Erregelamendua), finantza-bermea eratu behar duen ebaluatzeko, urriaren 23ko 26/2007 Legearen 24. artikuluarekin bat etorriz. Finantza-bermea eratu ondoren, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dio agintaritza eskudunari, eta adierazpen horrek 2090/2008 Errege Dekretuaren IV.1 eranskinean adierazitako informazioa jaso beharko du gutxienez. 26/2007 Legearen 28. artikuluko a) eta b) apartatuetan adierazitako salbuespenei jarraikiz

jarduera finantza-bermea eratzetik salbuetsita badago, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dio agintaritza eskudunari; adierazpen horretan, IV.2 eranskinean adierazitako informazioa jasoko da gutxienez. Apartatu honetan eskatutako dokumentuak ingurumen-organoan aurkeztuko dira, teletramitaziorako ezarritako aplikazioa erabiliz, eta, zehazki, «Ingurumen-erantzukizunari aurre egiteko finantza-bermearen jakinarazpena – MARMA» izeneko prozeduraren bidez.

Operadoreak ingurumen-arriskuen analisia eguneratuko du, egoki irizten badu, eta, betiere, funtsezko aldaketak gertatzen direnean jardueran, instalazioan edo oinarrizko baimenean. Ingurumen-arriskuen analisiaren ondorioetarako funtsezko aldaketa gertatzen dela ulertuko da aldaketa esanguratsuak egiten direnean prozesuetan, substantzia arriskutsuetan, biltegiratzeko gaitasunetan edo ingurumena babesteko neurrietan eta haiek instalazioaren ingurumen-arriskua aldatu eta areagotu badezakete. Finantza-bermearen zenbatekoa urtero eguneratuko da, KPIaren arabera.

Jardueraren operadoreak ingurumen-kalteak prebenitzeko, saihesteko eta konpontzeko neurriak hartu eta betearazi behar ditu, eta haien kostuak ordaindu behar ditu, zenbatekoa edozein dela ere, baita dolorik, errurik edo zabarkeriarik ez bada ere, Ingurumen-erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legearen 19.1 artikuluan adierazten den bezala. Era berean, sustatzaileak ingurumen-organoari berehala jakinarazi beharko dio ingurumenean kalteak izan direla edo kalte horiek eragiteko arriskua dagoela, gertatuak zein gertatzeke.

• Ingurumeneko finantza-bermearen kontrola.

IZParekin batera, dokumentu hauek bidali beharko dira, programa aurkezteko prozedura telematikoan gaitutako dokumentu-ereduak erabilita:

– Finantza-bermea eratu behar izanez gero, indarrean dagoen ingurumen-aseguruaren polizaren kopia edo eratutako finantza-berme motaren ziurtagiria aurkeztu beharko da urtean behin. Araua aplikatuz dagokion finantza-bermearen nahitaezko gutxieneko zenbatekoa hiru urtean behin eguneratuko da, KPIaren arabera.

– Ingurumeneko finantza-bermea eratzetik salbuetsita egonez gero, eta 300.000 eta 2.000.000 euro bitarteko zenbatekoarekin konpon daitezkeen kalteak eragin ditzaketen operadoreak izanez gero (Ingurumen-erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legearen 28.b) artikulua), organismo independente batek emandako ziurtagiriaren kopia aurkeztu beharko da, urtero; ziurtagiri horrek egiaztatu behar du organismo horrek etengabe atxikirik egon behar duela Batasunaren Ingurumen Kudeaketako eta Ikuskaritzako Sistemara (EMAS) edo indarrean den UNE-EN ISO 14001 Ingurumen Kudeaketarako Sistemara.